



268. zenbakia

2004-10-1

Goierritarra

goierriko

hitza



Urriaren 5etik aurrera etxean



o

oskarbi

**3URTEKO
BERMEA**



FREELANDER BERRIA NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

EUROLAN
4x4

Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



Freelander Td4 Manuala. Kontsumo konbinatua 7,6 l/100 km. CO₂ isurketak : 205 g/km

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Iñaki Ugalde, Iñaki Hidalgo eta Landarlan.

Azaleko argazkia: BKE argazki artxiboa.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Artisaualdia 2004, Ordizian: Gipuzkoako artisautzaren plaza

VII. Artisaualdia antolatu dute Gabiltzak eta Ordiziako Udalak, urriaren 8tik 12ra, Ordiziako Majori kiroldegian. Gipuzkoako artisautza bultzatzea du helburu Artisaualdiak eta horrekin batera, artisauen arteko topaketa ere izan nahi du.

Gipuzkoako 40 artisauk parte hartuko dute Artisaualdian. Tartean izango dira 5 goierritar: Lazkaoko Castelo, Ordiziako Koki Hernandez, Ataungo Maduixa, Ordiziako Maider Telletxea eta Gabiriako Txotxongiloak. Gipuzkoarrez gain, 6 bizkaitar, 3 arabar eta 3 nafar ere izango dira.

Urriaren 9an, arratsaldeko 5etan inauguratuko da ofizialki Artisaualdia. Handik aurrera, urriaren 12ra arte, goiz eta arratsaldez egongo da azoka zabalik, 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era. Bi tailer izango dira, hurrei zuzenduak: Koloreen Mundua eta Marrazki tailerra.

Giroa alaitzen, trikitilariak eta musika-riak arituko dira. Talogileak ere izango dira.

Hori bai, urriaren 8an, Barrenan, arratsaldeko 6etatik aurrera, artisauaren formazioaren inguruko hitzaldia izango da atariko gisa.

Urtero artisauen bat omentzen da eta aurtén, Debako Artisan Eskolari bere lanaren errekonozimendua egingo zaio.

Zozketak, sarrerak...

1,50 euro kostatuko da Artisaualdira sartzeara. Hori bai, 15 euro edo gehiagoko erosketetan, 1,50eko beherapena egingo da. Ordoro, 30 euroko erosketa txartelak zozketatuko dira, Artisaualdian bertan gastatzeko.

Artisauentzat ere izango da saririk: Stand dotoreenak sarituko baitira, Maxi Ordiziaren laguntzaz.

Goierritarra Goierrikan jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Urko Irastortza, prozesatuta, Udalbiltza auzian

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak Udalbiltzako 21 kideren aurkako auzipetze autoa kaleratu zuen irailaren 22an. Guztiei ETako kide izatea eta erakunde armatuarentzat dirua biltzea leporatzen die. 21 kide horien tartean dago Urko Irastortza lazkaotarra. Lazkaoko EHko zinegotzi ohia da Irastortza. Urriaren 6tik 8ra bitartean, Auzitegi Nazionaletik pasatu beharko du, auzipetzeen berri emateko, eta horren ondoren deklarazioa hartu ahal izateko.

Gudari Eguna

Irailaren 27an Gudari Eguna ospatu zen. Beasainen egin zen eskualde mailako manifestazioa. Aurreko egunean, Beasaingo Agortan, Jokin Leundaren monolitoan omenaldia eskaini zitzaion Goierriin hildako ETako kideei.

Espainiako armadaren maniobrak Goierriin

Irailaren 19tik 24ra bitartean, Espainiako armadako Parakaidisten Brigadako hainbat kide izan ziren Goierriin, beraien ariketak egiten.



Goierri Telebista: urriaren 4tik aurrera programazio berria

Urritik aurrera, Goierri Telebistak programazio berria pantailaratuko du. Egunero, eguerdiko 1,30etan eta gaueko 9,30etan, 'gaurkoan Goierritik' informatibo saioa izango da. Astelehenero, gaueko 10etan, 'goierri Kiroletan' kirol saioa saioa izango da Igor Sarriegik aurkeztua. Asteazkenetan, berriz, Jose Ramon Agirre 'Marron' zuzendari dela, 'Bidetxurretik' abentura eta bidai saioa emitituko da, gaueko 10etan. Ostiraleroko, azkenik, Oihana Sarasola kazetariak zuzentzen duen 'Solaskide' elkarrizketa programa eskainiko da, gaueko 10etan.

Marrazki bizidunak, pelikulak, saio bereziak, herri telebisten 'zapping' saioak eta beste hainbat kontu ere ikusteko aukera izango da urriaren 4tik aurrera, Goierri Telebistan.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11

www.anzizar.com

BEASAIN



RENAULT LAZKAO GARAJEA

☎ 943 882 442 / 943 888 901

Faxe.: 943 888 901

Senpere Industrialdea LAZKAO

Ikastetnik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5

943 160 120

Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta
tratamendua

- Test-ak, Frogak
- Tailerrak

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxe.: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Abian da pertsona ekintzaileentzako enpresa sortze eta kudeaketa ikastaroa

"Azken urteotan erronka berri eta ezezagunak ari dira agertzen enpresen munduan. Hala, nahiz eta sarritan gu ez horretaz jabetu, esparru honetan erabili izan ohi diren joko-arauek erabateko aldaketa jasan dute urte gutxian. Hemendik aurrera, gainera, Europako Batasunaren zabaltzearekin, egoera hori indartu besterik ez da egingo. Hori dela eta, inoiz baino beharrezkoagoa da pertsonen eta erakundeek aldaketei aurrea hartu eta hauetara moldatzeko gaitasuna izatea, ezegonkortasun maila handiagoz jokatzen ikastea eta etengabeko berritasunak onartzen jakitea. Hau guztia dela eta, inoiz baino arriskutsuagoa izan daiteke egun iraganeko jarrerari tinko eutsi eta berrikuntzei uko egitea". Testuinguru honetan ulertu behar da, 'Enpresa sortze eta kudeaketa ikastaroa'. Berau, negozio bat martxan jartzeko asmoa duten gizon-emakume ekintzaileei dago zuzendurik eta bertan parte hartzen dutenek, bere enpresa-ekimenarekin zer ikusia duten alderdi eta gorabehera guztiak aztertu eta enpresa sortzeko eman behar diren urratsei buruzko informazio baliagarria bereganatuko dute. Bestalde, bere proiektuaren ibilbide indibidualizatu bat egiteko aukera ere izango dute Goiekiko Inkubategiko lankideekin eginiko buruz buruko elkarrizketan.

Ikastaroa hainbat ataletan banatzen da eta atal bakoitzak enpresa-munduko alor ezberdin bati egiten dio erreferentzia. Hala, 'ikasleek', autoenplegua, merkatuaren azterketa, marketina, ekonomia eta finantzak, forma juridikoak eta laguntzak, zerga ordainketak, lanezko moduluak, ingurugiro modulua, "cuadro de mando" delakoa, ideiarekin bideragarritasun plana eta erakunde finantzarioekin negoziaketa aztertu ahal izango dituzte, beste gai batzuen artean. Era berean, ikastaro hau egitea ezinbesteko baldintza izango da, ondoren, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntza ekonomikoak eskatzeko.

Urtero bezala, aurtengo 'Pertsona ekintzaileentzako enpresa sortze eta kudeaketa ikastaroa' ere Inkubategi Zerbitzuak antolatu du. Goiekiko Enpresa Inkubategia 1995eko uztailan sortu zen eta bere helburu nagusia Goierrri eskualdean egon zitezkeen enpresa-ekimen berriak bultzatu eta sustatzea izan zen. Horretarako, informazioa eta aholkularitza erraztu, prestakuntza eman, bideragarritasun planak diseinatzeko saiatu, laguntza tekniko eskaini eta enpresa-zentroaren aukera eman izan ohi dira. Hala, azken 9 urteetan 204 enpresa berri abian jarri eta 400 lanpostu baino gehiago sortu dira Inkubategiaren laguntzarekin.

Aipaturiko ikastaroak hilabete bateko iraupena izango du. Urriaren 13an hasiko da eta bertako partaideek astelehenetik ostiralera izango dute zita, Goiekiko bulegoetan, goizeko 9:30etatik 13:30etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo lasai Goiekira (Ordiziako Industrialdea, 29.pabiloia) edota deitu 943 16 18 31 telefonora (Maialen).



Koldobika Jauregiren eskulturei eraso egin diete Ordizian

Ordiziako Udalak salatu duenez, Barrenan parkean Koldobika Jauregik jarritako eskulturak erasoak jasan zituen irailaren 18ko asteburuan. Bertan jarritako lau eskulturetan pintaketak egin dira. Erasoen aurrean hartu beharreko neurriak ari da aztertzen Udala, eta dagokion salaketa aurkeztea.



VII. Igartza literatur beka, Karmele Jaiorentzat Peru Magdalenak akzesita jaso du

Irailaren 15ean egin zen Beasaingo Igartza jauregian, VII. Igartza literatur bekaren saribanaketa. Julen Gabiria, Jasone Osoro eta Xabier Mendiguren Elizegik osatutako epaimahaiak emandako erabakiaren arabera, Gasteizko Karmele Jaiorentzat izan da VII. Igartza literatur saria. Dena den, momentuan bekaren erdia jaso du, 3.000 euro; gainerakoa, liburu bukatutakoan jasoko du.

'Amaren eskuak' du izena Karmele Jaioren nobela-proiektuak. Ama ospitalean koma antzeko luze batean daukan emakume gazte bat da protagonista: Nerea. Epaimahaikideen esanetan, 'Amaren eskuak' belaunaldi diferenteetako emakumeen arteko harremanak, haien problemen antzekotasun eta desberdintasunak lantzen dituen nobela da. Sentiberatasuna eta xehetasunekiko ardura azpimarratu ditu epaimahaiak, idazkeraren oreka eta erritmo egokiaren batean.

VII. edizio honetan, akzesita ere banatu da. Iurretako Peru Magdalenaren 'Lile' proiektua ere saritu dute. Elkarrekin uztarturiko ipuin-sorta da 'Lile'.



Karmele Jaio, Igartza saria eskuan duela.



Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean argitaletxeak antolatzen dute literatur beka Igartza.

'Liluratura' saioa Lazkaon Lertxundiren 'Konpainia noblean' oinarri

Azaroan, Lazkaon, Anjel Lertxundi idazlearekin hitzordua dago jarrita, Liluratura saioaren barruan. Bere 'Konpainia noblean' liburuz arituko bertaraten direnak. Liluratura saiora joateko baldintza, liburua irakarritako joatea da.

'Pas Basque' dantza ikuskizuna Ordizian

Bihar larunbata, urriak 2, gaueko 10etan, Ordiziako Beti-Alai pilotalekuan, Argia taldearen 'Pas de Basque' dantza ikuskizuna aurkeztuko da. Azken urteotako ikuskizunik hoberenetzat hartua izan den honetan, euskal dantzen plastikotasuna azaltzen da. Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean, 'Pas de Basque' ikuskizunak euskal usadiozko dantzen ikuspuntu berri eta originala ematen du, flamenkoa dantza egiten dutenen indar eta trebetasunaren parekoa.

izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

Olagi
Sagardotegia
Eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

X A X O
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 **BEASAIN**



Xepeño Agirreren errekorra

Ordubetea bolak botatzen aritu ondoren errekorra jarri zuen Xepeño Agirre segurarrak: 231 bola botalditan eta 1.336 birla. Aurretik Zegaman bizi den Martin Retegik zuen duela 4 urte egindako errekorra: 201 bola eta 1.150 birla. Ordubeteko lanean etengabe aritu ziren Xepeño eta bere laguntzaileak, bola inoiz gelditu gabe. Bukatutakoan esan zuenez, bere lanak adi-na meritu dute laguntzaileenak: Imanol Agirre semea eta Antonio eta Marzelino Agirre ilobak.



Jose txo Imaz memoriale: Ziani gizonezkoetan eta Urrutia emakumezkoetan

Irailaren 26an, Jose txo Imaz memorialean, Ordizia, Beasain eta Lazkao artean osatutako 10 kilometroko ibilbidea korrikalariz bete zen. Gizonezkoetan Kamel Ziani izan zen irabazlea eta emakumezkoetan Estitxu Urrutia. Dena den, ba-koitza bere neurrian aritu ziren lasterka ia 800 korrikalari anonimoak izan ziren protagonista.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble ajentzia



BIOK ZERBITZUAK, S.L.

Enpresetako aholkularitza orokorra

www.biokzerbitzuak.com

943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA

**IKAZTEGIETAKO OSTATUA BIRGAITZEKO
ZERBITZU INTEGRALEN
KUDEAKETARAKO LEHIAKETA DEIALDIA**

Helburua: Ikaztegietak "Ostatu" Taberna-Jatetxearen ustiaketa emateko lehiaketa bidezko kontratazioa.

Lizitazio mota: 300 euro hileko.

Behin-behineko fidantza: Ez da eskatzen.

Behin-betiko fidantza: 600 euro.

Proposamen aurkezpena: Azken eguna: 2004.eko urriaren 18a (barne)

Non aurkeztu behar dira: Udaletxeko bulegoan.

Informazio gehiago: 2004.eko irailaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko bulegoan.

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04
Kale Nagusia 34
BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
Kale Nagusia 34
ORDIZIA

Tel. 943 72 19 58
Sekundino Esnaola, 8
URRETUX



Goierritarra etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zailakie posta gastuak ordaintzeko


Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**



Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarritzko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkuntza.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoan aurrean.

6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea

Aurreko atal batean adierazi bezala, baliabideak gizakion premiak asetzeko ingurumenetik etengabe hartzen ditugun aire, ur, lur, elikagai, energia etab. dira. Baliabide hauek egoki erabiltzeaz gain, ahal den neurrian tokiko beharrak tokiko baliabideekin asetu behar dira.

Izan ere, bertako baliabideak erabiltz, gure baliabideen kontrola geuk izatea lortzen dugu eta honek gure herriak hain dependenteak ez izatea dakar. Ingurumenean ere eragin positiboa

du honek, garraioak sortzen dituen energia gastua eta kutsadura murrizten baitira.

Ekonomia dibertsifikatuz, aktibitate edo sektore ezberdinetara zabalduz, sektore bakar batek izan ditzakeen gorabeheren menpe ez egotea lortuko dugu. Eta hau oso garrantzitsua da batez ere krisi garaian, sektore baten krisiak ez duelako herri bateko ekonomi osoarengan eragingo.



Bal al dakizu?

- ➔ Tokian tokiko baliabideez ari garela ezin ahaztu bertako produktuak eta hauen ekoizleak. Azken urteotan izugarri jetsi da baserritik bizi direnen kopurua Goierriin: 1987an 250etik gora baziren ere baserritik bizi zirenak, 1999an 150 ziren (urteotan %38an jetsi da baserritar kopurua).

- ➔ Goierriko Agenda 21 prozesuaren barnean berriki egin den inkesta

baten arabera, Goierritarrak arduratuta gaude lehen sektorea jasaten ari den beherakada honekin: egoera sozioekonomikoaren barruan goierritarrak gehien kezkatzen dituen hiru arazoetan aurkitzen da nekazaritza eta abeltzantzaren egungo egoera.

- ➔ Inkesta berdinen emaitzek diotenez, goierritarren erdia da gutxi gora behera egoera honi buelta emateko beraien ohiturak aldatzeko prest agertzen dena. Eta erdi honen %35.5-a bertako produktu gehiago erosteko borondatea agertzen duena. Ez al da kontraesanik bi datu hauetan?

Etxeko gaztetxoenei (I)

Suposatzen dut gazte asko direla Lurra salbatu edo zaintzeko, beraiek ezer gutxi egin dezaketela uste dutenak. Horretarako behar den ahalmena ez dutela uste dutenak. Baina oker daude. Gazteok botere handia duzue. Zuek ezer esaten duzuen bakoitzean, helduak dituzue adi. Zuei ezer axola zaiuzuean, helduei ere axola zaie. Zuek zerbait egitean, helduek arreta jartzen dute. Ez dute beti hori adierazten, baina horrela da.

Beraz zuentzat Lurra salbatzea garrantzitsua bada, helduek jabetu eta onartu beharko dute. Gure planeta babesten laguntzeko milaka gauza egin daitezke, aukeraz beterik dago gure ingurua, eta hauetariko asko dibertigarriak dira oso. Batzuk zuen gurasoei zerbait irakasteko aukera emango dizute, eta ez alderantziz. Ekintza hauek, guztiok zer esan/egin handia duzuela erakutsiko dizute, eta hori da Lurraren onurarako dugun ahalmen nagusia, konzientzia-zioa, jabetza...

Zain ditzagun gure altxor ezkutak

Ezkutaturiko altxor bat! Honek, itsas lapurrak eta urrez gainezka dauden kaxa lurperatuak dakartzkigu burura. Baina urrea, gure Lurrean ezkutaturiko altxor bat besterik ez da. Badira gauza zoragarriak, gure planetak milioika urtetan zehar gorde dituenak. Badugu petrolioia, burdina, zilarra, area, aluminioa, kobrea,... eta bukaezina den zerrenda bat, osatzerik balegoke. Altxor hauek oparia dira guretzat. Gure etxeak berotzen ditugu, tresna bihurtzen ditugu, jakiak prestatzen ditugu... hauei esker. Eta egia esan, hauekin kontatu gabe egin dezakegun gauzarik ez dago.

**"Zuentzat Lurra
salbatzea garrantzitsua
bada, helduek jabetu eta
onartu beharko dute"**

Baina guzti hauek ez dira agortezinak. Dena kontsumitzen dugunean, ez da gehiagorik egongo. Hori ekiditea gure esku dago. Zer egin genezake? Lurretik atera eta behar ez ditugun gauzetan bihurtu behar al ditugu denak? Lurreko izaki guztiak izaten eta disfrutatzen jarraitu ahal izateko, zer egin?

Zain ditzagun gure ozeano, ibai, laku eta errekek

Gero eta gizaki gehiago dago Lurrean bizitzeko, baina erabiltzeko dugun ur kantitatea berbera da. Iturriko txorota irekitzen dugunean, ateratzen den ura, betiko lur-azpiko erreserbetatik dator, erreka eta ibai bere-tsuetatik. Urik gabeko egun bat pasatzean, zeinen baliotsua den ikusiko duzu. Ba al dakizu zuk urarekin egiten duzunak eragin zuzena duela gure erreka, laku, ibai eta ozeanoetan? beraien menpe bizi diren animalien? Ea bada kontu pixka batez, ura erabiltzen dugun alferrik galdu gabe. Pentsa ezazu gizakiak gure ozeano eta ibai-bideak erabili dituen modu guztietan: jateko, garraiorako, zaborra botatzeko, energia sortzeko, ongi pasatzeko... Ozeanoak horren zabalak eta ur baliabideak horren oparoak zirela ziruditez, ez gara duten garrantziaz ohartu. Orain hausnartu eta beste modu batez ekin behar diogu: egindako kaltea konponduz.

Zain ditzagun animaliak

Zergatik kezkatu animalietaz? Arrazoi bat izan daiteke: Lurreko izaki guztiek bizitzeko duina izatearen eskubidea dutela. Beste arrazoi bat: gure Lurraren gainean existitzen den izakien piramide ekologikoaren katean zati garrantzitsu bat direla, animalia guztiak! Intsekturik nimoñoena, elefanterik handiena edo pertsonarik azkarrena bezain garrantzitsua da planetaren bizitzeko mota guztien superbibentzian. Guztiok dugu leku berezi bat munduan, gure zeregina. Zer gertatzen da animali espezie bat desagertzen bada? Agian ez gara konturatu ere egingo... Baina zerbait aldatzen da Lurrean. Zentzu handia dauka animaliak babestea.

Ainara Arzelus

("Lurra salbatzeko zeuk egin ditzakezun 50 gauza erraz" liburuan oinarritua)

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Zuhaitzak zahartuko direnean, ezingo dute gaur egungo CO² maila xurgatu:** Nazioarte mailako Global Carbon Project zientzi proiektuko azken txostenen arabera, etorkizunean basoek gaur egungo CO² maila ezingo dute xurgatu eta horren ondorioz klima aldaketa hurrengo 50 edo 75 urteetan azkarrago gertatuko da. Gaur egun basoek CO²ren herena xurgatzen dute, azken 75 urteetan basoak berriztatu direlako eta "gazteak" direlako. Baina basoak heldutasunera iritsiko direnean, ez dute hainbeste CO² xurgatuko eta kopuru hori ere atmosferan pilatuko da.

✓ **Calendula officinalis, Ilen kultibatua.** Ukenduak eta olioak egiteko egokia, azaleko gaitz askotarako onuragarria da. Ekzemetan eta kolpeen ondoko handituetan eta haur txikien azal erreduretan oso erabilia da. Gainera aipatu urte osoan zehar ondo irauten duela oso gutxitan galtzen du izotzak. Eta landare honek botatzen dituen toxina batzuk ez dute uzten bere inguruan belar txarrak ateratzen bere inguruan oso landare gutxi aurkituko dugu. Honek errazten du belar txarrak kentzeko denbora motza izatea eta herbizida erabilera jeistea. Horrela lurrrak ez ditugu kutsatuko eta ingurumena zaindu egingo dugu.

Goierriko Hitza: urriaren 5etik aurrera, egunero

Urriaren 20az geroztik, lanean ari da buru belarri Goierriko Hitzaren lantaldea. Oinarritzko ikastaroak jasota, urriaren 5ean gaingitu beharko dute lehenengo azterketa. Hortik aurrera, egunero-egunero gaingitu beharko dituzte azterketak. Dena den, guztiak prest daude erronka berriari ekiteko.

Aimar Maiz gabiriarra izango da Goierriko Hitzaren zuzendaria. Aldamenean izango ditu sei kazetari: Arkaitz Apalategi ataundarra, Uxua Barandiaran beasainarra, Maider Del Olmo ordizarra, Estitxu Imaz idiazabalarra, Miriam Luki urretxuarra eta Idoia Luzuriaga zumarragarra. Tekniko lanean arituko



Goierriko Hitzaren lantaldea

Ezkerretik hasita, Uxua Barandiaran, Miriam Luki, eserita Aimar Maiz, Maider Del Olmo, Estitxu Imaz, Arkaitz Apalategi eta Idoia Luzuriaga. Argazkian, Erkuden Mugurza falta da.

dena, Erkuden Mugurza zegamarra da.

Beraiek izango dira Goierriko herrietako berriak bilduko dituztenak. Asteartetik igandera izango da Goierriko albisteak, euskaraz, irakurtzeko aukera. Beraz, badakizue: bertan ateratzeko albisterik edo oharrik izanez gero, Goierriko Hitzara deitu beharko duzue. Beheko koadroan duzue informazioa Hitzara bidaltzeko bide ezberdinak.

Albisteez gain, publizitatea ere jasoko da Goierriko Hitzan. Inor zoriondu nahi izanez gero ere, egongo da aukerarik. Eta azkenik, albiste tristen berri eman behar izanez gero, hau da, eskelaren bat jarri behar izanez gero, ere bai. Kontuan izan behar da, Goierriko egunkaririk banatuena izango dela Goierriko Hitza.

Ongi-etorri festa urriaren 4an

Urriaren 4an, iluntzeko 8etan, Hitzaren lokalen azpian (Beasaingo Andramendi Ikastolaren lokaletan, Urbialde plaza 7 behe) ospatuko da Goierriko Hitzaren ongi-etorri festa. Bideoa, bertsoak, Goierriko Hitzaren parte direnen hitzak eta luntxa izango dira.

Hitzaren eta Goierritarra aldizkariaren lokalak ikusteko aukera ere izango da. Ezustekoren bat edo beste ere izango da tartean.

GOIERRIKO HITZA

egunkariarekin harremanetan jarri nahi baduzu...

Albisteak, zorion agurrak, debaldeko iragarkiak, eskelak, publizitatea... Goierriko Hitzan jarri nahi izanez gero, hona hemen harremanetarako hainbat bide:

Posta elektronikoa: goierri@goierriko-hitza.info

Telefono zenbakia: 943 16 00 56.

Helbidea: Beasainen, Urbialde plaza, 7 - behe (Andramendi Ikastolaren lokaletan, Nacex parean).



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

SEGURUEN PROFESIONALAK

Aseguru korreduria

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- behe

Tfno.: **943 88 86 20**

Tfno. mugikorra: **609 49 14 41**

Faxa: **943 88 91 18**

LAZKAO



Publizista berria

Goierriko euskarazko prentsak aurrerapauso handia emango du urriaren 5etik aurrera. Publizitate arloan ere beste aurrerapauso bat emango da. Izan ere, publizitatearen komertzializazioaz arduratzen den enpresa bakar batek, Iragarri, S.L.k bideratuko baitu Goierriko euskarazko publizitatea. Hau da, Goierritarra aldizkarian, Goierriko Hitzan eta Berrian publizitatea jarri nahi duenak, Iragarri enpresara jo beharko du.

Iker Telletxea izango da Goierriko publizitatea eramango duena. 647319757 telefono zenbakira deitu eta bertatik bideratuko da publizitate guztia.

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA

Goierritarra

Urriak 22:

Goierritara aldizkariaren ziklo berriaren hasiera

Esku artean daukazu aldizkari hau histori-koa da, bera baita ziklo baten amaierako aldizkaria. Urriaren 22tik aurrera, ziklo berria hasiko du GOIERRITARRA aldizkariak. Diseinu edo itxura berriarekin etorriko da. Guztia koloretan. Edukiak ere berrituak izango dira. Gizarteko esparru ezberdinei zuzendutako atalak izango ditu GOIERRITARRA berriak. Etorkinak, gazteak eta jubilatuak esate baterako. Denborapasak ere izango ditu, iritzi saila, errezeta, aholkuak, kontu zaharrak... guztia bizi-bizi eta arin-arin, koloretan, ahalik eta jende gehienengana iristeko.

Publizitatea ere koloretan egiteko aukera izango da GOIERRITARRAN. Neurri txikiak ere bai.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez

Ia 11 urtetan herrietako kronikak izan dira GOIERRITARRAREN zutabe garrantzitsu bat. Hori guztia hainbat eta hainbat laguntzaileri eskeri izan da. Horien borondatezko lanik gabe ez litzateke posible izango GOIERRITARRA aldizkariak lortu duen erreferentzia lortzea. Beraz, guztioi, bihotz-bihotzez, eskerrik beroenak. GOIERRITARRA aldizkariaren historia zarete guztiok. Hori bai, GOIERRITARRAREN aro berrian ere, zuen laguntza ere eskertuko genuke, gaiak eta abar proposatzen.

Kronistez gain, beste hainbat eta hainbat kolaboratzaile ere izan zarete. Zuoi ere, esker mila, bihotz-bihotzez.

GOIERRITARRA
osasun zentroa

Dietetika eta NutrizioaTel.: 636 21 82 40

Psikologia eta Psikomotrizitatea Tel.: 656 76 10 40

Pedagogia eta LogopediaTel.: 616 24 15 26

FisioterapiaTel.: 656 73 18 00

Andrea Mari, 11 - 2. A (Notaria zaharra) - BEASAIN

Santa Fe jaiak Zaldibian

Urriak 5, asteartea:

19:00etan: Olalde baseritik herriko plazara Mondejujale-en desfilea, herriko txistulariekin, Goiztiri txarangarekin, Iztueta dantza taldeko dantzariekin, eta danbor joleekin.

Ondoren: Plazan mondejualeen martxa. Mondejuaren eta mondexilaren txupinazoa. Ondoren euri berezia. Amaitzeko, plazan kalejira.

20:00etan: Mondejuak das-tatzeko aukera izango da.

23:00etan: Dantzaldia 'Kiñu' musika taldearekin.

Urriak 6, asteazkena:

Santa Fe eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30ean: Iker Zubeldia eta Iñaki Murua bertsolariak.

12:00etan: Herriko trikitilarien saioa.



16:00etan: Haur jolasak.

18:00etan: Afizionatuen pilota partiduak. Lehen partidua: lau t'erdia barruan: Apeztxea-Renobales. Bigarren partidua: Julen Retegi-Ibon Gurrutxaga Belloso-Oier Mendizabalen aurka.

Ondoren, afal ordura arte: herriko trikitilariak.

22:30ean: Koldo eta Arantxa trikitilarekin eta Patxi Perez dantzariarekin erromeria.

Urriak 7, osteguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30ean: Buruhandiak.

12:00etan: Hamaiketako jubilatuentzat.

12:00etan: Kulki taldearekin haur jolasak.

17:00etan: Zezenak eta potokak herriko plazan.

22:00etan: Kutxaren bidez, 'Zazpi gezur txiki' antzerkia.

Urriak 8, ostirala:

mozorro gava:

19:00etan: Herri kirolak: Urtsu handi baserriaren aldeko jaialdian zaldibitar taldeek eginiko herri kirol saioaren errebantxa.

23:30ean: Dantzadia Rubi taldearekin. Atsedenaldira, goizeko leian: play back eta mozorro lehiaketa.

Urriak 9, larunbata:

12:00etan: Atletismo probak.

16:00etan: Mozorro festa, haurren play back-a eta merienda.

MIAMI TABERNA

- Mondeju pintxo eta etxeko solomoa
- Ogitartekoak
- Afariak

Festak ondo pasa

Santa Fe ☎ 943 88 31 05 ZALDIBIA

ARRESE

Jatetxea

Festa onak opa dizkizuegu

☎ 943 88 17 14 ZADIBIA

ZUBI ONDO TABERNA

☎ 943 88 28 76 ZALDIBIA

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea ZALDIBIA

Tfnoa.: 943 88 28 68

BIOK ALKAR

auto konponketa

ABS frenuetan eta injekzioan tailer espezialista

JAI ZORIONTSUAK PASA DITZAZUELA!

☎ 943 88 01 60

Mendi-Ondo ZALDIBIA

ZALDIBIARIKO UDALA

ZALDIBIKO HERRIAK

HERRIKO JAIETAN PARTE HARTZEKO GONBITEA EGITEN DIZUE

Ondoren Goiztiri txaranga-
rekin kalejira frontoi aldera

18:00etan: Pilota partiduak.
Lehen partidua, kadeteak:
Alex Sukia-Leunda Ropon-
Nazabalen aurka. Bigarren
partidua, lau t'erdia barruan.
Saralegi-Medina. Hirugarren
partidua: Unanue-Errasti
Mendizabal-Peñagarikanoren
aurka.

Ondoren, Udalak deituta,
'Giza eskubide guztien alde,
ilegalizazioen aurka, Euskal
Presoak Euskal Herrira' le-
mapean manifestazio isila.

23:30ean: Dantzaldia Drin-
dotsekin.

Urriak 10, igandea: koadrilen eguna:

11:00etan: Meza Nagusia

12:00etan: Iztueta dantza tal-
dea.



13:00etan: Koadrilen irteera
plazatik, Los Incansables txar-
angarekin.

14:30ean: Bazkaria, herriko
plazan.

Ondoren, Los Incansables
txarangak girotuta, koadrilen
arteko jokoak.

23:30ean: Dantzaldia Imun-
tzo eta Belokirekin.

Urriak 11, astelehena:

*Festa egun hau, txosna ba-
tzordearen eta tabernarien
laguntzarekin antolatu da.*

17:00etan: Zaldi lasterketa.

19:00etan: Txatunga Bembe
perkusio taldea.

Gauean: Afari herrikoia pla-
zan (norberak eramandako ja-
narekin).



Iragarki zaharrak

Aurtengo festetako egita-
rauan, 1950 urte inguruko
festa egitarauetatik hartu-
tako hainbat iragarki bil-
tzen dira. Egia esan behar
bada, gaur egun baino
umore gehiago erabiltzen
zen marketingerako.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA



☎ 943 88 00 44

Aiestaran erreka

LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

➔ 4 logela, beren bainugelekin

➔ Gosari, bazkari eta afariak

ZALDIBIA



*Jaiak ospatu eta
falta direnak
gogoan*

JOXE PANE
HERRI OSTATUA

☎ 943 88 20 47

ALBISU ETXEA

ZALDIBIA



Garbitasunak

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 607 140 721

ZALDIBIA

Zaldibiako jaietako bi berrikuntza: Atletismo proba eta zaldi lasterketa

4 x 400 erreleboak

Aurtengo Santa Fe jaietako egitarauan, atletismoak bere lekua izango du. Urriaren 9an izango da, 12:00etan.

Javier 'Karratu'-k atletismoa bultzatu nahi du, herritarrengana gerturatuz, nahiz eta korrikarako zaletasuna egon badagoen, atletismoaren egoera ez baita onegia.

Helduen mailan, Gipuzkoako sei taldek hartuko dute parte: Real Sociedad, Atletico San Sebastian, Goierri Garaia, Tolosa, Txindoki eta Bidasoa. Bi proba burutu beharko dituzte: 4 x 400 erreleboak eta deskalifikazio proba. "Gipuzkoa mailan, era honetako probak jokatzeko den lehenengo aldia izango da Zaldibiakoa. Erreleboak, herriguneko ibilbide batean jokatu direlako. Deskalifikazio proban, talde bakoitzeko korrikalari batek parte hartuko du eta txirrindularitzan bezala, helmugatik azkena pasatzen dena, kanporatua izango da", adierazi digu 'Karratu'-k.

Herriko eskolako haurrek ere atletismo proba honetan parte hartzeko aukera izango dute. Erreleboetan jokatu dute, 4 x 200 proban.



Javier 'Karratu'-k atletismoa bultzatu nahi du, herritarrengana gerturatuz



Xabat Garmendia zaldibiarak adierazi digunez, Zaldibian zaletasun handia dago zaldien arloan.

Zaldi lasterketa, urriaren 11n

Herriko gazte talde baten ekimenez, zaldi lasterketa jokatu da urriaren 11n, arratsaldeko 5etan. Arkaka bidean, erreka aldean dagoen zelaian prestatuko dute hipodromoa. Txapeleketan parte hartu nahi duten zaldiak, 4,30etarako apuntatu beharko dira. Izena emandako kopuruaren arabera eta kalitatearen erabakiko dute lasterketaren neurria. Aurretik ere eman daiteke izena, 943 16 03 38 telefono zenbakira deituta. Izen ematea dohanik da. Lasterketan parte hartzeko ez dago inongo baldintzarik.

Hiru sari banatuko dira: 300 euro, 180 euro eta 120 euro.

BEGO
Gurea Mertzeria

Arropa denda
◆ Emakume
◆ Gizon
◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 943 88 57 98 ZALDIBIA

MARIBI
Ileapaindegia

Jai zoriontsuak denoi!

Bide-Arte, 48
☎ 943 88 57 49
ZALDIBIA

NAZABAL
ERRETEGIA^k

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 88 71 46
Sta. Fe Kalea ZALDIBIA



kutxa

gizarte ekintza



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal

ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S. 32/04

LAZKAO

**Etxebizitza
unifamiliarra:**

- Lorategia
- Eguzkitsua
- Goi mailako materialak



943 16 10 32



WWW.ADVNULTIMEDIA.COM

Urriak 8:

Ordiziako Euskal Letren Eguna

Goierriko 18 idazle eta poeta bilduko dira Barrenan


Orain dela 100 urte egin zen bezala, aurten ere Euskal Jaien barruan, Euskal Letren Eguna ospatuko da urriaren 8an, Ordizian. Goierriko 18 idazle eta poeta bilduko dira, bakoitzak aukeratutako bere testutxoak irakurri dezan. Ordizia eta Goierri buruzko gaien antologiatxoak egingo dute Barrenan.

Ordizian Lehen Euskal Lore-Jokoen mendeurrena ari dira ospatzen. 1904an folkloreak eta nekazal txapelketek garrantzia izan bazuten ere, Euskal Lore-Jokoak ere izan ziren. Hau da, literatur sariketa bat antolatu zen, Urdanetari, Ordiziari, Azokari edo Goierriko baserritarraren bizitzari eskainitako lan hobereana saritzekotan.

Aurten, 100 urte beranduago, urriaren 8an elkartuko dira Goierriko hainbat idazle eta poeta, iluntzeko 8etan, Barrena Kultur Etxean. Parte hartuko duten idazleak honakoak dira: Patxi Zubizarreta, Tere Irastortza, Ekaitz eta Irati Goikoetxea, Andoni Sarriegi, Koldo Goitia, Mielanjel

Lehen Euskal Lore-Jokoen Mendeurrena (1904-2004):

ORDIZIAKO EUSKAL LETREN EGUNA



Liburuxkaren azala.

Unanua, Juanbau Erauskin, Patxi Ezkiaga, Iñaki Mendi-guren, Idurre Eskisabel eta Jon Aranok, aukeratutako hainbat testu irakurriko dituzte. Ordiziarekin, Goierrire-kin, azokarekin, Goierriko hizkerarekin zerikusia duten

testuak dira guztiak. "Antolo-giatxo bat badago", dio Jon Arano koordinatzaileak.

Goierriko idazleen poesia eta prosa errezitaldia, Pello Irizar pianojole beasaindarra-ren piano doinuak lagunduko du.

Liburuxka

Testu hauek guztiak, liburuxka batean bildu dituzte. Liburuxkaren bukaeran, Iñaki Otamendi 'Xoxoa'-ren biografiatxoak, gogoeta eta bere obraren zati bat bildu dira.

1.000 aleko tirada duen liburuxka urriaren 8an bertara-tzen direnen artean banatuko da. Irakurzaletasuna sustatze-ko helburuz, Ordiziako ikas-tetxeetako ikasleei ere bana-tzekotan dira.

"100 urte geroago ere hemen gaude"

Jon Arano idazleak koordina-tu du guztia eta berak kontatu dizkigu Euskal Letren Egun honen aurrekariak eta nondik norakoak: "Augusto Monte-rrosoren Munduko ipuinik hi-perlaburrena da 'Dinosauroa'. Horrela dio: "eta esna-tu zenean, oraindik han zego-en". Nahiko enigmatikoa izan da, inork ez du jakin izan zer esan nahi izan zuen. Esal-di hori eraldatzea bururatu zait, 'eta Dinosauroa esnatu zenean, goierritarra, euskal herritarra, oraindik han ze-go-en', jarri dut 100 urte pa-satu direla, baina oraindik ere hemen gaudela esan nahi izan dut".

Unanue

70 URTEURRENA
1934 - 2004

ORDIZIA - BEASAIN

70 urte
goierritarrak goxatzen!




Iñaki Otamendi 'Xoxoa'

Ordiziako olerkaria gogoan

Ordiziako Euskal Letren Egun honek, herriko poeta ezezagun baten oroimena ere izan nahi du: Iñaki Otamendi 'Xoxoa'. Ordiziarraren inguruko datu askorik ez dago, baina jarraian duzue Jon Aranok bildu ahal izan dituenak.

Iñaxio Otamendi 1915eko azaroaren 5ean jaio zen Ordiziako kaleko 'Xoxoa' baserrian. Gerraurrean seminarioista izan zen zazpi urtez. Manuel Lekuona eta Joxe Miel Barandiaran izan zituen irakasle Gasteizko apaizgaitegian. Esan liteke han "euskaramindu" eta literaturzale-tuko zela. 'Giza adinak' olerki luzearekin, 'Xoxoa' olerkari ordiziarrak Lekeitioko VII. Euzko Olerti Eguneko zilarrezko abarra merezi izan zuen 1936. urtean, Anjel Sukiarekin (gerora kardinala



Lekeitioko VII. Euzko Olerti Eguneko zilarrezko abarra merezi izan zuen 1936. urtean, Anjel Sukiarekin batera.

izan dena) batera. Aitzolek bere azken artikuluan (1036-VII-18) bien lanak goraipatu zituen.

Gerrak eztanda egin eta gero, Itsasondoko Urkia auzora alde egin zuen. Hurrena, berriz, beste asko bezala, harrapatuko zuten eta Oñati aldera abiatuko zen erreketekin. Handik bueltan teolo-

gia ikasketak burutu izan arren, ez zuten apaiz onartu: bere delitu bakarra, poesia saria irabaztea.

Gasteiz eta Kanarietan bukatu izan behar zuen soldadutza, Loiolan lizentziatu eta handik nerbioetatik gaixo itzuli zen. Donostiako psikiatrikoan hilabete eman ondoren, elizatik deitu omen

zuten, baina jada beranduegi zen eta berak ez zuen nahi ia. CAFen lan egiteko eskaintza izan zuen aidanez, baina bere amak etxean moldatuko zirela esan omen zuen eta baserriko lanak eginez geratu zen, nahikoa isolaturik, baina bizitza aurrera atereaz. Zurezko koilareak eta beste-lako tailak egiteko abilezia zuenez, azkenerako Gizarte Asegurantzaren eta guzti sartu bide zen. Neke askoren ondoren 1978an hil zen, 62 urterekin.

Hil eta gero omenaldia egin zion Kardaberaz Bazkunak. On Manuel Lekuonaz gain, Joxemiel Barandiaran, Imanol Aldaregia, Anastasio Albisu, Anjel Sukiak eta abarrek hitz ederrak izan zituzten Iñaki Otamendiren poesiaren balioaz eta zenduaren izaera isil eta xumeaz.

Iñaki Otamendiren lana, Ordiziako Euskal Letren Egunerako atera duten liburuxkan biltzen da.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

iBAti ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrocientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

III. Boluntario-eguna ospatuko dute Beasainen urriaren 2an

Herriko hainbat elkartek beraien lanaren berri emango dute

Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta herriko hainbat elkartek, hirugarren Boluntario-eguna antolatu dute urriaren 2rako. Gernika pasealekuan, goizeko 10etatik ordu bietara, hainbat ekintza burutuko dituzte.

Beasaingo Udaletxeko Ongizate Saileko Silvia Gomezek, Beasainen antolatzen den Boluntario-egunaz hainbat xehetasun eman dizkigu.

Zer izaten da Boluntario-eguna?

Giza eta boluntario izaerako Beasaingo Elkarten topaketa-eguna da. Egun honetan, elkarteek beraien egitasmoei buruzko informazioa ematen dute, Beasaingo herritarrek, herrian dauden elkarte eta beraiek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruz, informazioa izan dezaten.

Norbaitek bere denboratik, nahiz eta pittin bat izan, beste laguntzeko eskaini nahi



badu ere, egun honetan aukera polita dauka edozein elkarteekin harremanetan jartzeko.

Zein da bere helburua?

Jarduera honen helbururik nagusia, Beasaingo herritarrei boluntario gisa lanean ari diren elkarteak ezagutzera ematea da. Hala eta guztiz ere beste helburu batzuk ere badauzkagu egun honetan, adibidez oso garrantzitsua iruditzen zaigu elkarteak ere, beraien artean ondo ezagutzea,

beraien artean lankidetzaz sustatzeko, behar baten aurrean deribazio egokiak egiteko...Eta noski, elkarteetako helburu nagusi bat ere bada, beraiek egiten duten lana azaltzeaz gain, boluntario berriak atzematea.

Boluntario-egunaren kokalekua aldatzen joan zarete. Aurtan Gernika pasealekura eraman duzue.

Pentsatzen dugu Gernika pasealekuan jarrita, errexago

Egitaraua

10.00etatik 14.00etara: Haurrentzako jolasak.

11.00etatik 14.00etara: Elkarten materiala eta produktuak jasotzeko aukera izango da.

11.15ean: Musika eskolako trikitilarien saioa.

iritsiko garelako jendearengana, larunbata goizean jende gehiago mugitzen baita alderdi horretan. Elkarten Standak gutxi gora behera, San Martin estatuaren inguru horretatik parkeko frontoira bitartean kokatuko dira. Haurrentzat puzgarriak, berriz, San Martin estatuaren atzealdeko plaza txoan eta parkeko frontoian kokatuko dira.

Hala ere, garbi utzi nahiko genuke, gure helburua elkarten egitasmoei ezagutzera ematea dela eta jendeari esan, guregana lasai gerturatzeko. Denok garbi izan behar dugu, boluntarioa izatea, bakoitzaren erabakia dela eta horretara ezin dugula inor behartu.

Parte hartuko duten taldeak

Nagusilan: Adineko pertsonen arreta eta laguntasuna.

Gurutz Gorria: Osasun, gizarte eta prestakuntza alorrak jorratzen dituzte.

Goiztat: Adimen osasun arazoak eta atzerapena duten pertsona eta familiei laguntza.

Minbiziaren Aurkako Elkartea: Gaixoei eta familiakoei laguntza.

Txilibutxof: Elkartasuna, laguntasuna, elkarbizitza eta abar bul-tzatzen dituen aisialdi taldea.

Herriak Elkarlanean misio-taldea: Hirugarren munduaren alde lanean.

Caritas: Beharra duten pertsonen alde.

Beasaingo Osasun-pastoral-tza: Gaixorik daudenei bisita eta laguntasuna.

Beasaingo erretiratu eta pentsiodunen elkarteak: Bere bazkideei zerbitzu eta jarduerak desberdinak eskeintzen dizkiete.

Txolarte: Adimen-urritasuna duten 16 urtetik gorako pertsonentzako aisialdi taldea.

Odol-emaileak: beraien odola ematen dute.

Adinekoentzat hainbat ekintza

Belaunaldien arteko V. topaketa

Urriaren 1ean, arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara ospatuko da Urbialde plazan belaunaldien arteko V. topaketa. Helburua, adineko pertsonak eta umeen arteko harremanak bultzatzea da. Horretarako jo-koak, tailerrak txokolate jana eta dantzaldia antolatu dituzte. Parte hartzeko baldintza bakarra, partehartzaile guztiak bikoteetan bildu beharko direla izango da. Bikote bakoitza adineko pertsona batek eta ume batek osatu beharko dute.

Tailerrak Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartean

Urritik abendura bitartean tailer desberdinak eramango dira aurrera Jubilatuen etxean: eskulanak, olio-pintura, hariekin egiteko lanak, yoga eta egur tailaketa.

Abesbatzako entsaioak ere datorren astean hasiko dira. Lehena, urriaren 6an 19:00etan, telebista aretoan izango da.

Nekane Altuna

Argazki lehiaketa

Peña Belokik eta Argizpi Argazkizale Elkartek Beasaingo udalaren babesarekin antolatu dute 5. Argazki lehiaketa Peña Beloki Saria. Argazki eta txirrindularitza zaletu guztiei zuzendua dago. Gaia txirrindularitza izaingo da, zuri-beltzean eta koloreetan hiru argazki aurkeztu beharko dira egile bakoitzeko. Teknika eta aurkezteko moduaz askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 X 40 cmko kartoiez sendotuta. Irabazleak 180 euro eramango ditu. 2.nak 150 euro eta 3. sailkatzen denak 100 euro. Sari berezia emango zaio Joseba eta Gorka Beloki txirrindulariei ateratako argazki onenari. Lanak, Argizpi Argazkizale Elkartera edo Basakana tabernara eraman behar dira. Lanak jasotzeko azken eguna urriaren 24 izango da.

Nortasun agiria berritzeko datak

Nortasun agiria berritu nahi dutenek Beasainen egiteko aukera izango dute Udal bulegoan, urriaren 14an eta 28an. Txanda Udaltzaingoan ematen da 6:35etik 21:25era. 125 zenbaki banatzen dira. Nortasun agiria egiteko lan taldea Donostiatik etortzen da eta ordutegia honako hau da: 9:30etatik 13:15era. Egindakoak jasotzeko ere Udaltzaingotik pasatu behar da.



III. Boluntario-Eguna

Urriaren 2an ospatuko da Gernika Pasealekuan, 10:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago ondoko orrialdean.

Euskal dantzen ikastaroa

Aurtzaka Dantza taldeak aditzera eman du, aurtengo ikastarutea hastear dagoela. Euskal dantzak ikasteko aukera izango dute beraz, 4 urtetik gorako haur eta gaztetxoek. Bilera, gaur urriak 1 egingo dute Alkartasuna Lizeoan arratsaldeko 6etan. Interesa duzuen guztiok beraz bertan azal zintezkete.

Gaztetxoei zuzendutako bi ludoteka

Beasainen haur eta gaztetxoei zuzendutako bi ludoteka daude. Berritsu euskarazko ludoteka-zerbitzua Loinatz San Martin plazako bi geletan dago eta 4 urtetik 12 urtera arteko haurrei eskaintzen zaie. 4 urtetik 8 urtera; 17:00etatik 18:30era eta 9 urtetik 12ra; 18:30etik 20:00etara. Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara eskaintzen dute zerbitzua.

Txelotxe, Ezkiaga Auzo-etxeko euskarazko ludoteka eta aisialdi zerbitzua berriz, 4 urtetik 16ra bitartekoei zuzendua da. 4 urtetik 8 urtera; 16:30etik 18:00etara eta 9 urtetik 16 urtera; 18:00etatik 19:30era.

Aste honetan bertan martxan jarri badira ere izango da aukera oraindik izenak emateko. Harremanetan jartzeko telefonoak hauek dira: Txelotxe ludoteka: 943 086550 eta Berritsu ludoteka: 943 886546.

III. Koiote Mus txapelketa

Ostiraletan eta jai bezperatan, J.M. Iturrioz kaleko Koiote tabernan, III. Koiote Mus txapelketa jokatu da, 2005eko ekainera arte. Saio bakoitzeko irabazleek hiru puntu jasoko dituzte eta bigarrenek bi. Punturik gehien biltzen dituen bi bikotek jokatu dute finala. Izena emateko garaian 16 euro ordaindu behar dira, hortik 14, sarietarako bideratuko dira. Lehenengo hamar bikoteak sarituko dira.

Itsasondo



Argazki artxiboa

Itsasondoko jaietako egitarauaren barne, Itsasondoko jaietako argazki zaharren erakusketa izan da ikusgai. Bertaratu den jende kopurua eta ikusleek agertutako harrera eta interesa ikusirik, guztiz ekimen arrakastatsua izan dela esan daiteke.

Hau ikusirik, herritar talde bat bildu da lan honi jarraipena eman asmoz eta Itsasondoko argazkien artxibo bat sortzeko intentzioa dute. Artxibo honetan jaietako argazkiez gain, Itsasondorekin zerikusia duten bestelako argazkiak ere egongo lirateke.

Honela etxean Itsasondoko argazkiak dituzuen guztioi berauek Udaletxean utz ditzazuten eskatu nahi zaizue. Argazkiaren kopia egin bezain laister argazkiak itzuliko zaizkizue.

Ekimenak duen arrakastaren arabehera aurrerantzean

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Itsasondoko Udalak, abuztuaren 5ean egindako bilkuran, euskara ikasteko dirulaguntzak ematea onartu zuen. Laguntza jasotzeko nahi dutenak eskaera azaroaren 10a baino lehenago egin beharko dute, ikasturtea otsailean hasten dutenak berriz otsailaren 29 baino lehen aurkeztu beharko dute eskaria.

Emango diren laguntzak honakoak dira: **Langabetuentzat:** ikastaro arruntaren %50 ordainduko zaie. **Barnetegi moduan** egindako ikastaro eta ikastaro intentsiboen %25 ordainduko zaie. **Langabetu ez direnei:** Ikastaro arruntaren %15 ordainduko zaie. **Barnetegi moduko** ikastaro edo ikastaro intentsiboen kasuan ez da laguntzarik izango.

Aurkeztu beharreko agiriak ondorengoak lirateke: N.A.-ren kopia, eskaera orria, langabetu txartela (langabetuentzat laguntza eskatzen den kasuetan), matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria, norberaren kontu korrante zenbakia eta ikastaro bukeran aprobetxamendu orria aurkeztu beharko (%80ko asistentzia).

Laguntzak jasotzeko ezinbestekoa da Itsasondon erroldatua egotea eskaera aurkeztu ikastaroa amaitu bitartean.

erakustaldi eta ekimen gehiago martxan jartzea litzateke taldearen asmoa baina horretarako herritar guztien laguntza ezinbestekoa da.

Lazkaoko Oin-Arin taldeetako dantzariak etorri ziren. 10:30ean elkartu, hamaiketako egin eta ordu batean alardea egin zuten guztiek elkarrekin. Bazkaldu eta arratsaldean

Lazkao

Gipuzkoako jubilatuen XIV. ibilaldia

Urriaren 2an, goizeko 10,30etan hasita, Gipuzkoako Jubilatuen XIV. ibilaldia jokatuko da Lazkaon. Zortzi kilometro eta berrehun metroko ibilbidea prestatu da herrigunean. Jubilatuen egoitza paretik aterako da ibilaldia. Bukatu ere bertan bukatuko da. Gipuzkoako jubilatuen egoitza ezberdinetako partaideak etorriko dira Lazkaora. 600-700 lagun etortzea espero da.

Dantzari Txiki egun arrakastatsua

Irailaren 26an, Oin Arin dantza taldeak antolatuta, Dantzari Txiki egun arrakastatsua ospatu zen, eguraldi eta giro ona nagusi zirela. Beasaingo Aurtzaka, Ordiziako Jakintza, Ataungo Otsoak, Gabiriako Goruntz, Irungo Ardaxka eta



talde bakoitzak bere jarduna egin zuen. Oin Arinekoek eskerrak eman nahi dizkiete, Ikerri, Enekorri, Idoia Goenagari eta laguntza eman duten guztiei.

Udal ikastaroak

Euskara: Hasierako mailako taldea osatu da lau lagunekin. Urrian hasiko dira, astean hiru egun, bazkalondoetan. Irakaslea: Marina Paglialunga. Erdi mailako taldea osatzear dago.

Soinketa, egur tailaketa, euskal dantza gaztetxoentzat, yoga, aerobic eta KZ gunean ere ikastaroak antolatu dira. Izen emateko eta informazio gehiago Udaletxean.

60 odol emanaldi

Gipuzkoako odol emaille elkartearen 2004ko intsignia eta garaikur banaketa Anoetako belodromoan izango da urriaren 17an. 60 odol emanaldi egin izangatik oroigarri berezia izango du Joakina Alustiza herritarrak. Emakumezkoetan Gipuzkoako bakarrenetakoa da kopuru horretara iritsitakoa. 25 emanaldira iristeagatik, zilarrezko domina eta diploma jasoko dituzte Egoitz Berasategi eta Karmele Goikoetxea herritarrek ere.



Eskolara lehen aldiz

2002an jaiotakoak dira eskolan dabilen txikiak. Ezkerretik eskuinera: Joanes Telleria, Alejandro Korta, Garazi Caminos, Odei Hijarrubia eta Kepa Garmendia, Karmele Aierbe irakaslearekin. Taldea txikia denez, piskanaka, 2001ean jaiotakoan taldean integratuko dituzte.

Urrezko ezteiak

Patxi Garaialdek eta Angela Katarainek ezkondu zireneko 50. urteurrena ospatuko dute urriaren 16an. Eguerdiko leian meza izango dute komentuan eta ondoren familiarteko bazkaria Olaberrin. Patxi eta Angela 1954ko urriaren 16an ezkondu ziren Segurako elizan.

Munduko errekorra

Irailaren 25ean munduko errekor berria ezarri zuen bolatan Xepeño Agirrek Segurako Txoritegi bolatokian. Ordubetea, 231 botalditan 1.336 birla jo zituen (5,8ko batazbestekoa). Aurreko mar-

ka Martin Retegiren esku zegoen (201 botalditan 1.150 birla).

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Errejonialak: Eibartarra 2-0 Segura. **Jubenilak:** Segura 6-1 Soraluze. **Kadeteak:** Aiz-

Azken kronika

Artikulu hau da Goierritarran aterako den azkenekoa. 1994ko otsailetik, 227 kronika izan ditu Segurak hamaboskari honetan. Guztira, herriari buruzko 4.000 albiste inguru eta 500en bat argazki. Aurrerantzean, asteartetik igandera buzoneatuko den 'Goierriko Hitza'-n izango dituzue herriko kronikak euskara hutsean. Segura, Zegama, Idiazabal, Zearain, Mutilo, Gabiri, Ormaiztegi eta Ezkio-Itsasoko artikuluek, gure herrian ezauna den Estitxu Imaz idiazabalدارا arduratuko da.

Joseba Telleria

korri 18-1 Urki. **Infantilak:** Urnieta 5-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Billabona. Zapatuan, 11:00etan. **Errejonialak:** Segura-Hamaika bat. Zapatuan, 16:00etan.



Antonkalene: ehiztarien bilgune

Uda ondoren hasi eta ehiz denboraldia amaitu arte, ehiz kontuak dira nagusi iluntzetan.

Labur-labur

- **Jubilatuena ibilaldi neurtua.** Urriaren 2an, Lazkaon. Emakumezkoen taldea: Maria Arruabarrena, Karmen Intxausti, Bittori Telleria eta Joakina Alustiza. Gizonezkoetan: Patxi Imaz, Joakin Izagirre, Joxe Goikoetxea eta Gregorio Artola.
- **Jubilatuentzat hitzaldiak.** Urriaren 5ean, prostatari buruz eta 14an hipertentsioaz. Kultur etxean, 19:00etan, Kutxaren laguntzaz. Urriaren 6an eta 13an, leku eta ordu berean osasunari buruzko hitzaldiak Julian Bereziartuak.
- **Umetxea martxan.** Zenbait gurasok garbitu eta txukundu dute Zurbanoneko gela. Urriko zubiaren ondoren egingo den meriendarekin emango zaio irekiera. Guraso interesatuak bertan jarriko den arduradunen turnoetan apuntatu behar dira.
- **Euskal girotze barnetegia:** Irailaren 20an hasita, 8-11 urte bitarteko 1.000 haur inguruk euskaraz aritzeko aukera izango dute aterpetxean. Astero, 30 laguneko taldeak pasako dira.

- **Eskolako euskal dantza taldeak.** Ikasturtero bezala, urrian hasiko dira.
- **III. Hegazti azokako** zozketa ibiltariko zenbakia: 0291.
- **Koruaren entsaioak Santa Zeziliarako.** Urriaren 5ean hasita, asteartero 19:30ean Kultur etxean.
- **Haur abesbatza:** Urriaren 7an hasiko dira entsaioak, 19:30ean Kultur etxean. Izen ematea ere egun berean. Aurrerantzean ostegunero elkartuko dira.
- **Pelota eskola.** 7tik 13 urte bitarteko 30 mutikok emana dute izena. Urrian hasiko dira.
- **Kirol eskolarra.** 8tik 12 urte arteko 55 neska-mutikok 10 kirol ezberdinetan aritzeko aukera izango dute urriaren 16tik aurrera.
- **Ordozgoitiarren bazkaria.** Urriaren 3an, Berastegin.
- **Nafarroa Oinez.** Urriaren 17an Lizarrarako autobusa antolatuko du Elorri K.Ek.ak. Izen ematea Elorripen.

Urriaren 4an irekiko dute Ludoteka

Urriaren 4tik aurrera Udalak ludoteka zerbitzua eskainiko du Kultur Etxean. 3 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekimena da eta astelehentik ostiralera egongo da zabalik arratsaldeko 5etatik 8etara. Ainara Urteaga izango da 'Ttipi ttpa' izena hartu duen gune berriaren arduraduna.

Adinaren arabera bi talde osatuko dira ludotekara joaten diren haurren artean. 17:00etatik 18:30etara hiru, lau eta bost urteko haurrak arituko dira. Seitik zortzi urtera bitartekoek, ondoren izango dute jolasean aritzeko aukera. Hala, adin bakoitzari dagozkion jarduerak egingo dituzte herriko neska-mutikoei.

Ainara Urteaga arduradunaren esanetan, *"ludotekaren helburua haurrei aisialdirako beste alternatiba batzuk eskaintzea da. Hau ez da haurtzaindegi bat, eta hori gurasoek argi eduki behar dute"*. Astero helburu zehatzak ezarriko ditu arduradunak eta horiek lortzeko jokuak landuko dituzte. Ludoteka lau zatitan egongo da banatuta: liburutegia, esku lanen txokoa, mahai jokoa eta gune irekia.

Zerbitzua doan eskainiko du Udalak, hala ere Ludotekan parte hartu nahi duten haurrek, Udaletxean eman behar dute izena.

Xabier Urteaga

Zubiak

Zortzi hilabeteko lanen ondoren, irailaren 24an ireki zuten Toki Txokoko zubia. Plazakoa (kronika hau idazterakoan bukatu gabe zegoen) ere laster irekiko dute. Hori gertatzerako, ordea, Bi Kabiko zubia botako dute.

Agurra

GOIERRITARRAK hartuko duen bide berria dela eta hau da aldizkarian agertuko den Idiazabalgo azkeneko kronika. Urte hauetan guztietan hamabostean behin informazio eske joan eta eman didazuenoi eta eskatu gabe eskaini duzuen guztioi, eskerrik asko.

Labur-labur

- **Alejandro Aldanondok** hitzaldia eskainiako du urriaren leian (ostirala) arratsaldeko 7etan Pilar Eneako ganbaran. Kongon egindako lanaren berri emango du. Ekitaldia Kasongo Lunda GKE-ak antolatu du.
- Urriaren 5ean, astearte, Jubilatuen Elkarteak antolatuta, **'Autoestimaren garrantzia'** hitzaldia eskainiko du Xabier Arrazolak, arratsaldeko 7etan Jubilatuen Elkartearen.

Zirika Irratia

Zirika Irratia etenik gabe, 24 ordutan, arituko da aurrerantzean. Irailaren bukaeran hasi ziren emisioak froga modura, eta urritik aurrera egunero entzun ahal izango da.

Egun osoko emisioa egin ahal izateko, frekuentzia berria hartu du Zirika Irratiak. Hemendik aurrera, FM-ko 98.9an entzungo da. 24 orduko emisioa martxan jarrita, irratiko taldeak herritarrei dei egin die irratian parte hartu dezaten.

Hasieran, musika izango da programazioko osagai nagusia. Dena den, laster herritar batzuk egindako saioak hasiko dira. Larunbatetako taldeak saio berritua eskainiko du urriaren 2tik aurrera. Astero, herrian gertatutakoaren errepasoa egingo dute 'Zapatukoa' izeneko saioan. Eguerdia baino bost minutu lehenago hasi eta hirurak arte arituko dira. Tarteetan, 'Idiazabal Astebete' albistegia eskainiko dute.

Jubilatuen eguna

Urriaren 19an ospatuko dute herriko jubilatuek beraien eguna. 12:00etan meza egingo dute eta 14:00etan bazkaria Olaberriako Arrieta jatetxean. Bazkal ondoren, sariak eta opariak zozketatuko dituzte. Idiazabalen, 65 urtetik gorako 400 bat lagun daude.

Aldaize

Aldaize herri aldizkariaren bosgarren alea kalean da. Udan, herriko trikuharrietan egindako indusketei buruzko erreportajea egin dute. Elkarrizketan, Unai Begiristainek Italian euskara irakasten egiten duen lanaren berri ematen du.



Hiru kilo pasatxo

Hala pisatzen dute argazkian Franciso Montinhok dituen bi tomateek (batera hartuta). Batak 1,76 gramoko pisua du eta besteak 1,64koa.

- Urriaren 6an, asteazkena, **odola emateko aukera** izango da, Guraso Elkarteko lokalean. 18:30etik 20:30era.
- Urriaren, **KZ guneko arduraduna asteazkenetan** egongo da Pilar Eneako ganbaran. Arratsaldeko 4:00etatik 8:00etara.
- **Bad Machine** talde finlandiarrek kontzertua eskainiko du Idiazabalen urriaren 9an. Igarondo pilotalekuan arituko dira 22.30etatik aurrera. Kontzertuan herriko 'EAK' taldeak ere parte hartuko du.

Helduen XXVII. mendi ibilaldia

Aurten Euskal Mendi Federazioaren urteroko helduen mendi ibilaldia gure herrian egokitu da. Ataundar guztiok ahalegin berezi bat egin behar dugu gure herrira datozen mendizaleek, egun eder, alai eta patxadatsua izan dezaten. Herria ezagutzeko aukera izango baita, Aralar Natur Parkean zehar doan ibilbidean. Bidean, leku mitologiko askotatik igaroko dira.

Ibilbidea

Auzoeta kiroldegia, Iztator, Plaza, Udaletxea, Aizkortane, Garaialde, Mendiolape, Bordaberri-Okarizti, Etxeberriaundi, Lekueder, Aizeleku-Arrizabalaga, Saletxeberriburu, Esnaolaetxeberri, Lasarte-ko lepoa, Errekarte, Kobaegi,

Atxuripe, Aralegiko zelaia, Aldasbarrena, Aldatsoko iturria, Agauzko harratea, Leizegi (Leizadi), Aizkerri-Iguñeta, Urkillaga-Mendiurkullu, Igartu-Gaztiñerre, San Gregorio, Olalde, Ola, Errota, Errotatxo-Peruneberri, Goikoetxe, Gomensoro, Etxetxoberri, Sara, Etxetxo, Perunezarre, Aldakotxo, Urezandi, Zubiondo, Olaluzeagako karobizulua, Olaluzeaga-Musaga, Iturralde, Joxemiel Barandiaran eskola, Auzoeta kiroldegia.

Arautegia

Izena aurrez emateko gomendio egiten da; bakoitzak 3 euro ordaindu beharko ditu. Bazkaritarako izen-ematea ere aurrez egitea komeni da:



2 urteko haurrak eskolan hasi dira

Irailaren 8an ekin zioten kurtso berriari Joxemiel Barandiaran Herri Eskolan eta ekainaren 22an amaituko da 2004-2005 ikasturtea Haur eta Lehen Hezkuntzan. Lau aste klaseak goizez bakarrik jaso ostean, urriaren 4tik aurrera goiz eta arratsaldez hasiko dira. Aurten 2 urteko gelan 6 haur berrik ekin diote ikasturteari.

20 euro. Irten baino lehenagore egin ahal izango da. Abiera Ataungo Auzoeta kiroldegian izango da, goizeko

8,30etatik 9ak bitartean. Ibilbideak 15 km eta 4'30 ordu inguruko iraupena izango du.

San Martin plazako zubia itxita kotxeentzat

Hemendik aurrera San Martingo plazako zubia ibilgailuentzat itxi egingo da. Altzanipe eta Zelaieta etxeen inguruan liburutegia, Herri Antzokia, umeen parke berria, eta abar. Ikusita Udalarri egokia iruditu zaio pertsona helduak eta batez ere haurrak lasai ibil daitezen zubia ibilgailuentzat ixtea.

Atsedeen Tokiren irekiera

Joan den larunbatean hilak 25 ireki zituen ateak berriro ere Atsedeen Tokik. Taberna irekita ez egon arren, lokala bertaratu nahi duten jubilatuentzat goizeko 9etatik iluntzeko 9etara eguneroko zabalduko da.

Silo bolak egiteko plastikoaren bilketa

Aurreko urteetan egin izan den moduan, silo bolen plastiko bilketa kanpaina berria hasiko da, bilketa hilean behin egingo da: urriak 19, azaroak 16, abenduak 21. 2005. urtean, urtarrilak 18, otsailak 15, martxoak 15, apirilak 19, maiatzak 17 eta ekainak 21. Udalak aurrez itxitura bat egingo du bilketa puntuetan eta plastikoa bezperan, astelehenean, atera beharko da. Bilketa puntuak: Otadi Zelai baserria, Ataungo herrirako sarbidean, San Martin mediku etxe atzean, Arratetan Agerrerako bidegurutzean, Lauztierrekan Arratiñe bidegurutzean, Ergoienan zubia gurutzatuta, Urkilla gainean eta Artzate baserrian Urkillaga jaisten, errebuelta ondoko baserrian. Birziklatzeko arazoak ematen dituenek, sokak eta antzekoan ez ateratzea eskatzen da.

Doltza Barandiaran

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Sehaskak ikasgelan

Hiru mutikorekin ireki ditute Gabiriako haurtzaindegia. Joan den irailaren 15ean hartu zituzten Celia eta Garbiñe zaintzaileek aurreneko hiru "bezeroak", Patxi, Edorta eta Xabier, uztailera bitartean goizero euren kabia izango den egoitzan. Bi ume urtebete ingurukoak dira; gazteenak, ordea, bost hilabete besterik ez ditu.

Goizeko 9etan hasten dute haurtzaindegian eguna bi zaintzaileek eta hiru mutikoez. Goizean -eta eguraldiak laguntzen badu- plazako jolaslekura ateratzen dituzte umeak. Bestela barruan dituzte didaktikarako eta denborapasarako hamaika joku. Bazkaria bertako sukaldean eman eta ondoren lokuluxka egiten dute sehasketan. Arratsaldean esnatutakoan gurasoek prest edukiko dituzte seme-alabak etxera eramateko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta nekazari eremuko herrietako udalek

elkarlanean sortutako kontsorzioaren emaitza izan da haurtzaindegi zerbitzua. Akordioaren arabera Gabiriako Udalak lokalak jarri ditu, eta Jaurlaritzak zaintzaileak nahiz baliabide materialak ordainduko ditu. Udaletxeko lehen solairuan dagoen etxebizitzan atondu dituzte ume jaioberrientzat egokiak diren bi gela. Bat jolasleku eta logela modura erabiliko dute; bestea sukaldea da. Komun berezia ere badute, ume txikienezko neurrikoa.

Momentuan hiru haur besterik ez badaude ere -haurtzaindegia martxan edukitzeko behar den gutxieneko kopurua-, denera hamar ume-erentzat dago lekua. Matrikulazioa edozein unetan egin liteke, beti ere plazak dauden bitartean. Hori dela eta, 0-2 urte bitarteko umeak dituzten gurasoak haurtzaindegia erabiltzera animatu nahi ditu udalak, zerbitzua sendotu eta hobetzen joan dadin.

Labur-labur

- **KZgunera** Maria Albisu arduraduna urriaren 7an eta 21ean etorriko da, goizeko 9etatik 13etara. Gogoratu, hala ere, egunero erabil daitekeela internet zerbitzua.

Arantzazura erromesaldia

Irailako azken igandean, hilaren 26an, egin zen urteroko erromesaldia herritik Arantzazura. Goizean 54 lagun bildu ziren santutegian, gehienak autobusez joanda. Lehenbizi frantziskotarrek harrera egin zieten, eta komunitatean aitortu ondoren eguerdiko mezetara joan ziren. Hospederian "erromesen menua" bazkaldu eta arratsaldean bezperak entzun zituzten.

Aurreko egunean, larunbatean, 11 laguneko taldeak oinez egin zuen bidea, Aztirik abiatu eta Urbitik bueltan.

Organo kontzertuak

Elizako koruan dagoen organoak 200 urte bete ditu aurten. Hain data seinalatua ospatzeko bi organo kontzertu antolatuta ditu Eliza Batzordeak, Foru Aldundiko kultura sailaren laguntzarekin. Lehenengoa urriaren 10ean izango da, igandean, eta Vicente Ros organojole valentziarra izango da gonbidatua. Bigarrena azaroaren 14rako dago pentsatua; Giulia Biagetti italiarrak aterako dio soinua orduan bi mendeko historiari.

Bola txapelketa

Denboraldia isteko Osinalde bola txapelketa jokatu da bihar larunbata, urriak 2, udal bolatokian. Hamaikagarren edizioarako sari sorta bikaina izendatu dute antolatzaileek, hala nola, irabazlearentzat txapela, garaikurra eta 60 euro. Sailkapeneko lehen bostek jasoko dute ordaina, baita lehen hiru herritarrek eta gazte mailakoek ere. Izena emateko ordutegia arratsaldeko 16:30etatik 18etara egongo da zabalik.

Osinalde elkarteak antolatutako Gipuzkoa mailako sariak garrantzitsuak etxe hauen laguntza izaten du: Gabiriako Udala, Goiko-Luz argikuntza, Ibaiondo altzariak, Ostatu jate-txea, Korta jatetxea, Jos-Bel ileapaindegia, Aramendi burdinak, Askain aspirazioak, Irizar forjak eta Jatur hornigaiak.

Julian Alustiza, "Aztiri"-ren liburu berria

Praile eta idazle aztiriarrak liburua osatu berri du, urtetan hantzenka argitaratu zituen idazlan eta artikuluen onetsuenak bilduz. 1913an Etxetxo baserrian jaioa eta Arantzazun frantziskotar gaztetatik, euskal nekazari munduaz gehien dakiten artean egongo da Julian; Lihoaren penak eta nekeak eta Euskal baserriaren inguruan liburu klasikoetan bildua du jakintza horren emaria, jaioterriaz aipamen ugari bezain zabalak eginez, gainera. "Aztiri" izengoitiarekin sinatu izan ditu lan asko. Eta gurean hain ezezagun...

Goierritarratik Hitzara

Azken alea izango da honakoa Gabiriako kronika Goierritarra aldizkarian irtengo dena. Hemendik aurrera Hitzara egunkariak hartuko du zeregin hori. Urte hauetan hamabostero aldizkari-ko gure herriko orrialdea mamiz bete duzuen guztioi zorionak, eta eskerrak bihotzez hori bildu eta jantzen lagundu didazuen beste horrenbesteri. Gero arte!

- **Festen errepassoa eta balantzea egiteko bilerara** dei egingo du udaleko festa batzordeak. Urriaren 5ean, astearte, iluntzeko 7etan udaletxean izango da.

Aimar Maiz



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar



Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54



Zoruak eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

Eguneko zentroa gaur irekiko da

Zegamako Udalak, Olarango Babes Ofizialeko etxepean, Eguneko Zentroa ere eraki zuen, zegamarrok ditugun eta izango dutugun beharrei erantzuna eman asmoz. Esan, Zegamako Eguneko Zentroak 6 plaza dituela eta horietatik dagoeneko 5 beteak direla. Gaur bertan ateak irekiko dituen Zentro honen zerbitzuak behar dituenak jo beza Zegamako Udaletxeko Gizarte Laguntzailearengana.

Jubilatu eta pentsiodunentzat gimnasia ikataroa

Datorren urriaren 5ean hasiko da Jubilatu eta pentsiodunentzat gimnasia ikastaroa Joakin Elkororekin. Gimnasia hau Olarango Gizarte Zentroan emango da eta izenematea Udaletxean egin behar da. Jubilatu erroldatuak: 12 euro. Herrian erroldatu gabeko jubilatuak: 42 euro. Pentsionistak: 21euro. Soinketa hau astearte eta ostegunetan izango da goizeko 10,30etatik 11,30etara.

Kilometroak 2004

Datorren igandean, urriaren 3an Kilometroak 2004 ospatuko da Orio eta Zarautzen. Azken egunotan 50 bat lagunek eman dutenez izena autobusez bertara hurbiltzeko autobusa antolatu ahal izan da, izan ere gutxienez 30 lagun kopurua jartzen baitzen horretarako. Autobusa goizeko 9etan irtengo da Kooperatiba aurretik eta handik arratseko 7etan abiatuko da Zegamara.

Nafarroa Oinez

Urriaren 17an, Lizarran burutuko den Nafarroa Oinezera joateko ere autobusa antolatzeko asmoa dago, betiere 30 lagun elkartzen badira. Izene-matea irekita dago bai Udaletxe eta baita Udal Liburutegian. Kostua: 5 euro. Esan, Zegaman erroldatuak urriaren 8 arte izena eman dezaketela, eta egun horretatik aurrera tokirik balego kanpokoak ere hartuko direla.

Mus txapelketa

Gaur, ostirala, urriak 1, Tartalo Elkartean XII. Mus txapelketaren finala jokatu da gaueko 9etatik aurrera.

Orkatz abesbatza Sant Sadurni D'Anoyara

Urriaren 8an, Orkatz abesbatzak Katalunia aldeko bidea hartuko du, Sant Sadurni D'Anoyara, hain zuzen ere.

9 urte zegamako berri ematen

1995ean hasi nintzen GOIERRITARRA hamabostekarian Zegamako gora-beheren berri ematen. Oso oker ez banago behintzat, garai hartan nire aurretik beste bi lagunek edo, hainbat kronika bidaliak zituzten baina, Zegamako berri eman zuen norbaiten bila zebiltzala eta azkenean egokitu zitzaidan lan honen 'ardura'; behar bada, nik Udaletxean dudatan lanpostuak, herriko kultur eta kirol mugimenduen berri izateak, bideratu zuen ardura hau niregana. Askok izan zarete, zuen elkarte, talderen berri edo edozein jardueren informazioa eskuratu didazuenak, eta beraz eskerrak ematea besterik ez zait gelditzean. 9 urteren buruan, hainbat idatzi, informazio, argazki bidali ditut, askotan presaka idatzita eta seguraski, kontutan hartu beharreko jarduerak batekin baino gehiagorekin ahaztu naizela, aurrez doakio beraz, nire barkamen eskaera, eta besterik gabe, lerro hauen bidez, agurtzen natzaizue GOIERRITARRA aldizkari berriemate modura. Eskerrik Askok guztiori.

Eduardo Albizu Ormazabal



8 haur bataiatu ziren San Martin Parrokian

Irailaren 19an bataioak ospatu ziren Zegamako San Martin Parrokian. Aspaldi honetan, hainbeste haur batera bataiatu gabe zeudela esan behar. Guraso eta senditartekoen berotasunez inguraturik honah hauek izan ziren bataiatuak:

Ezkeretik eskubira: Eneko Olarte, Egoi Telleria, Unai Telleria, Maialen Errasti, Olaia Aizpeolea, Ainhoa Arakama, Ander Arrizabalaga eta Aimar Arrondo.

Bertan ospatzen den Cavaren Astearen programaren barruan, igandean kontzertua eskainiko du.

Jubilatuak Gernikara

Urriaren 25ean, Gernikako Azoka berezia ospatuko da aurten ere, eta Zegamako jubilatuak urtero bezala feria hau ikustera joateko autobusa

prestatu dute. Izenematearen berri aurrera emango dute.

Igandeetako bideo emanaldiak

Kultur Etxean arratsaldeko 5etan.

Urriak 10: 'Hermano oso'.

Urriak 24: 'Johnny English'.

Aitz-gorri futbol taldearen partiduak

Kadeteak 2. Maila: Urriak 3: Antzuola K.E.-Aitz-Gorri F.K. Urriak 10: Aitz-Gorri F.K.-Aretxabaleta B Arizmeni K.E. Urriak 17: Aitz-Gorri F.K.-Soraluze F.K. Urriak 24: Ikasberri K.E.-Aitz-Gorri F.K. Urriak 31: Aitz-Gorri F.K.-Eibartarrak "B" F.T.

Infantilak 1. Maila: Urriak 3: Aitz-Gorri F.K.-Billabona K.E. Urriak 10: Lazkao K.E.-Aitz-Gorri F.K. Urriak 17: Euskalduna K.E.-Aitz-Gorri F.K. Urriak 24: Aitz-Gorri F.K.-Idiazabal K.E. Urriak 31: Intxurre K.K.E.-Aitz-Gorri F.K.

Jubilatuen egunean Juan Mujika eta Kasilde Arzelus omenduko dituzte

Urtero bezala aurtengorako ere herriko jubilatuen elkarteak adinekoen eguna antolatu du, aipatu ospakizuna urriaren 10ean izango da. Aurtengoan ere egun hori ospatzeko prestatuak dituzte dagoeneko eguneko ekitaldiak.

Egun gure herriko jubilatuen elkartea 180 bazkide inguruk osatzen dute, aurtengo ekitaldietan ere beraietatik

gehienez parte hartuko dute.

Eguneko ekitaldiei hasera 12:00etan ospatuko den meza nagusiak emango die. Meza hau hildako elkartekideen omenez eskainia izango delarik.

Meza ondoren 14:15etan Lierniko Mujika jatetxean ospatuko duten bazkarian elkartuko dira. Liernira joan eto-



Juan Mujika eta Kasilde Arzelus

rria egiteko autobus zerbitzua izango dute. Autobusa 13:45etan herriko jubilatuen elkartetik aterako da.

Bazkal ostean urtero ohi bezala aurtengoa ere bi elkartekideek gainontzeko kideen eskutik omenaldi sentikorra jasoko dute. Aurtengoan omenduak Juan Mujika Zufiaurre eta Kasilde Arzelus Loiola izango dira. Aipatu omenaldiaz gain oparien zozketa ere egingo dute.

Juan Mujika eta Kasilde Arzelus

Bai Juan eta bai Kasilde bi herritar preziatu ditugu, bata baserri giroan bestea herrigunean bizimoduak erakutsi eta emaniko oroitzapen zenbata ezinen lekuko dira.

Juan Mujika Zufiaurre Iraegi baserritik herriraino makina bat aldiz oinez etorri eta joana da. Garai batetan gaur eguneko konturik ez zenez, elur eta izotz ugariko ibilbideak egina izango da. Juan bezala belaunaldi haietako gizon-emakumeek negu gogorak ekartzen zizkieten izotz eta elurrei baita udarako beroei ere aurre egiten jakin izan diete, orain baino askoz

ere baliabide gutxiagoekin lantokikoez gain baserriko etenik gabeko lanei aurre egiten jakin izan zieten.

Kasilde Arzelus ere makina bat izerdi ateratakoa da herritarrek beraien mahaiean jango zuten ogia egin eta saltzen. Orain hilabete gutxi desagertu zen okindegi etxean egiten zuten ogia guztien oroitzapen bizi bezala geratu da. Egunero-egunero goizean goiz ekiten zioten ogia egin eta saltzeari, Kasilde Ormaiztegiko historiaren lekuko aparta dela esan dezakegu. Garai haietako oroitzapenak bizi-bizirik gordetzen ditu, makina bat istorio eta pasadizoen kontakizunak ezagutze-
ra eman dizkigu. Kasilde Ormaiztegiko historiaren nortasuna hurrengo belaunaldiei ezagutzera ematen jakin izan duen herritarra dugu.

Gainontzeko herritarrok ere lerro hauetatik gure zorionik beroena bidaliz, Juan Mujika eta Kasilde Arzelusek beraien elkartekideen eskutik jasoko duten omenaldiarekin bat egin nahi dugu. Juan eta Kasilde, jaso ezazue besarkadarik beroena.

Aitziber Murua

Arrastoak 2004

Aurtengoan ere 'Arrastoak 2004' hau da jatorrizko euskal animalia espezieen V. erakusketarako prestaketa lanak aurrera doaz. Urtero bezala urriaren hirugarren igandean ospatuko da, hau da urriaren 17an. Aurtengo berrikuntza erakusketaren kokalekuaren aldaketa da, hau da erakusketa zubipe kiroldegia inguruan kokatu beharrean herrigunean kokatuko baita. Abereak erakutsi eta erakuslekuak prestatzeko herrigunea eta inguruko belardiak erabiliko dira. Beraz aurtengoan herri gunea eta abereak uztarturiko dira. Egun osoan zehar ospatuko diren ekitaldiez bateriko egitaraua izango da, hurrengo alean berri zehatzagoa emango dizuegularik.

Odol ateraldia

Ormaiztegiko odolemaileen elkartek odol ateraldi berri bat prestatu du. Oraingo ateraketa, urriaren 8an, ostirala burutuko da. Odol ateraketak arratsaldeko 6etatik aurrera egingo dira. Herritar guztioi dei egiten zaigu ateraketa berri honetan parte har dezagun, nahiz odolemaile izan nahiz lehenengo aldiz odola ematera hurbildu.

Lehenengo aldiz odola ematera joan nahi duzutenek jakin arazi nahi zaizue edozein zalantza aurrean bertara lasai hurbiltzeko, bertan behar duzun laguntza eta argibideak eskeiniko zaizkizuelarik.

Gimnasia ikastaroa

Aurten ere ikasturte hasiera-ekin batera gimnasia ikastaroa jarriko da martxan. Joakin Elkoro izango da irakaslea eta urriaren 5ean emango zaio hasiera ikastaroari. Iaz bezala asteartea eta ostirala izango dira gimnasia egiteko egunak eta arratsaldeko 7,30etik 8,30era egingo da. Izena emateko udaletxera zuzendu behar da.

Gripearen aurkako txertoa

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina irekita dago urriaren 31ra arte.

Ludoteka, liburutegi zerbitzua

Ikasturte berriarekin batera kultur etxeko zerbitzuak martxan daude, besteak beste liburutegi zerbitzua, Kzgunea eta herriko haurrentzat ludoteka. Kultur etxea asteartetik ostiralera arratsaldeko 4etatik 8etara irekita dago eta larunbatean goizeko 10etatik 1,30era.

San Migel eguna

San Migel egunean, irailaren 29a, herriko parrokiako zaindariaren eguna ospatu zen.

Iñaki Ugalde



Mutiloarrak Arantzazuko erromesaldian

Irailaren 4an egin zen Zerain eta Segurarekin batera Arantzazuko erromesaldia eta, argazkian ageri den bezala, herriko koadrila ederrak parte hartu zuen ibilaldian.



Erakusketa

Igandera arte erakusketa izango da ikusgai udaletxeko aretoan. Osteguna eta ostiralean 11:00etatik 14:00etara eta larunbat eta igandean

12:00etatik 14:30era. Haurrak eta herriko eskolaren inguruko gaiak lantzen dira ondorengo gaietan banatuta:

Argazki rally arrakastatsua

Guztira 22 nagusi eta 7 hurrek parte hartu zuten XI. argazki rallyan. Argazkiak egiteko gai hauek izan zituzten: Santiago Bideko elementuak, irribarreak eta haserreak, txuria eta beltza, paisai urbanoa eta gai libre.

Diapositiba emanaldia eta sari banaketa azaroaren lehen arratsaldeko 6etan izango da.

Alde batetik Kutxako fototekako 'Haur garaiak' erakusketa. Gipuzkoako haurren lehen urteetako hainbat alderdi eta une biltzen dira: inudek babestutako haurrak eta kalean jolasean dabilzanak; haurrak eskolan eta haurrak jaietan; haurrak lanean; kirola egiten ari direnak eta ospitalean daudenak. Baina guztiak haurrak.

Baita ere Olaberriko eskolako hainbat argazki ere ikusgai izango dira: kaskoko

eta Ihurreko eskolako erai-kuntzen eta bertan ibilitako hainbat ikasle talderen argazkiak (kopiak eskatzeko aukera ere izango da).

Monse Martinez eta Olatz Berrondok egindako Ihurreko eskolako maketa ere ikusgai izango da.

Azkenik, Olaberriko herri eskolako materialen erakusketa izango da, herri eskolako bizirik dagoela eta aurrera doalaren adierazgarri.



San Migel jaiak

Joan zen irailaren 24, 25 eta 26ko asteburuan ospatu ziren San Migel jaietako ospakizun gehienak.

Ostiralean haur jolasekin eman zitzaizen hasiera. Iluntzeko festa sagardo dastaketaren inguruan izan zen, horretarako 5 sagardotegieiek eskainitako edaria izan zen lagun. Eskerrak hemendik Aulia, Eula, Isastegi, Begiristain eta Zalbide sagardotegiei beraien laguntzagatik.

Larunbat arratsaldea haurren gozagarri izan zen Tako-lo, Pirritx eta Porrotx pailazo-

en emanaldiarekin, herriko eta inguruetako haur ugari hurbildu zen bertara eta denek ere alai igaro ahal izan zuten arratsaldea. Eguraldi presko samarra zenez, horri aurre egiteko zer hobeago mondejua eta ardoa baino? Hortik nahi adina izan zen frontoira inguratu zenarentzat. Aurtengoan baziren ekitaldi berriak ere, horien artean idi apustua eta jendeak gustura hartu zuen, hori uste dugu behintzat bertaratu zen jende mordoak kontuan hartzen badugu.

Aurtengo uda jarduerak

Aurten, beste urteetan bezalaxe, udan hainbat ekintza egin dituzte Gaintzako haur eta gaztetxoek. Monitore lanetan Nekane eta beste bi laguntzaile izan dira. Urtetik urtera haur gehiagok parte hartzen dute Gaintzako jarduera hauetan, iaz 16 haur ibili ziren eta aurten 3 haur gehiago. Hona hemen jardueretan parte hartu duten haurren izenak: Ane Garmendia eta Beñat Matxain (2 urtekoak), Sara Garmendia, Garazi Garmendia eta Eider Matxain (4 urtekoak), Jon Irastorza eta Jon Telleria (6 urtekoak). Baina, gaztetxoek izenak ere aipatu gabe ezin utzi eta hona hemen: Uxue, Jabier eta Maria Ibañez, Mikel eta Lander Telleria, Elixabet eta Alazne Garmendia, Uxue Irastorza, Joseba eta Ander Matxain, Ane Ormazabal eta Eñaut Muerza.

Urte askoan udako jarduera hauek orain arteko giroan egi-tea espero da. Bide batez eskerrak eman Nekaneri, laguntzen aritu diren Alazne Garmendia ordiziarrek eta Uxue Irastorza



Haur eskola martxan

Irailaren 15ean hasi zen martxan herriko haur eskola. Bertan, hezitzaile lanetan Idiazabalgo Miriam Ruiz de Alegria ari da. Egokitze prozesuan ari da haurrekin eta ondorioz 10:00etatik 11:30ak arte egoten dira herriko 4 haurrak. Egokitze prozesua bukatzean, haur eskolaren ordutegia 8:00etatik 15:30era luzatuko da. Beraz gure herriko Iker, Josu, Ane eta Beñat gustura izango dira, denbora gehiago egongo baitira elkarrekin.

Haur eskola egokitze lanak Udalak burutu ditu eta funtzionamendurako material hornidura eta hezitzailea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren ardura izan dira. Aspaldiko urteetan Gaintzan eskolarik gabe egon bagara ere haurrak herrian bertan eskolaratzeko aukera berriro martxan dugu.

Eta iganderako geratu ziren txirrindulari igoera goizean eta artzain zakur lehiaketa arratsaldean. Ekitaldi hauek ere giro ezin hobean igaro ziren eta jendea ere gustura egon zen. Ondoren Ordiziako Urdeneta Dantza taldearen ikuskizuna izan zen frontoian.

Jaiei amaiera emateko San Migel Eguna izan zen asteazkenean, meza nagusiaren ondoren bazkaria izan zen Oteñe Erretegian, bertaratu ziren herritarrek izan zuten nahiko janetik aparte bertso eta trikitixa ere. Bertan baitziren Jon Lopategi eta Angel Larrañaga bertsolariak eta Zabale eta Larrañaga trikitilariak.



gaintzarrari. Aurten udako jardueretan ateratako argazkiak udaletxean egongo dira urriaren 5etik aurrera.

Jose txo Imaz memoriale Ziani eta Urrutia nagusi

800 korrikalari inguruk parte hartu zuen oraingoan ere Jose txo Imaz Memorialean. Laugarren urtea izan da Txindoki Atletismo Taldekoek proba antolatu dutena eta bertan gizonetzkoetan Kamel Ziani nagusitu zen bitartean, emakumezkoetan Estitxu Urrutia izan zen lehena. Ziani oriotarrak probako marka ontzeta lortu zuen, gainera. Orain bi urte Ruseell Chin-ek 30:06 minutuko denbora egin zuen bitartean, aurreko igandeetan Zianik 29:30eko denbo-

ra egin zuen. Atzetik Martin Fiz gasteistarra eta Roberto Ruiz izan zituen.

Emakumezkoetan lehia bizia izan zuten Estitxu Urrutia bizkaitarra eta Amaia Insausti olaberriarrak. Azkenean Estitxu aurrea, Amaia bigarren eta Rosi Talavera hirugarren. Urrutiak 36:21eko denbora egin zuen, Insaustik baina 3 segundu gutxiago. Esan hirugarren aldia dela Estitxu Urrutiak Imaz Memoriale irabazten duena.



VII. Artisauladia

Udazkenean sartzarekin batera Ordiziak artisauekin du hitzordu garrantzitsua. Artisaualdiak zazpigarren edizioa izango du aurtengoan eta urriaren 9 eta 12a bitartean ospatuko da Majori Kiroldegian. Informazio gehiago 3. orrialdean duzue.

Aitor Calvillo

Euskarazko web orriak

Informatika arloan euskararen erabilera sustatzeko, dirulaguntzak eskainiko ditu Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak. Batetik, 60 euroko laguntza emango die euskarazko programak erosten dituztenei eta bestetik, 60 eta 100 euro bitartekoa web-orriak euskaraz jartzen dituzten enpresa, merkataria, ostalari eta erakundeei. Laguntza horien eskatzaileak Ordizian bertan eduki beharko du egoitza soziala eta fiskala. Dirulaguntza eskatzeko epea abenduaren 2a bitartekoa izango da eta Euskara Zerbitzura jo beharko da.

Euskara ikastaroak

04-05 ikasturtea hastear den honetan Ordiziako Udalak herritarrek euskara ikastera edota hobetzera animatu nahi ditu. Eskualdean 3 euskaltegi daude, Lazkaon Maizpide, Beasainen Udal Euskaltegia eta Goierri osoan Goiztiri AEK. Azken honek Ordizian du egoitza nagusia, Andre Mari kalea 4-2- ezkean (Dorrea Etxea), postetxe gainean hain zuzen. Ikastaroak astelehenean bertan hasiko dira. Ohiko euskalduntze taldeez gain Ordiziako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren ondotik, autoikaskuntza gela ere eskaintzen du Goiztiri AEK-k. Ikasle bakoitza autonomia izango da eta norbere tutorea izateaz gain euskaltegian bertan dagoen materiala erabiltzeko aukera izango du. Etorkinak, gurasoak, lan mundua, ikastetxeetako irakasleak... denentzako dituzte aurrez bereziki prestaturiko ikastaroak. Ordiziako Udalak jakinera eman nahi du, gainera, ikastaro hauek guztiak egiten dituztenek dirulaguntzak izango dituztela. Informazio gehiagorako jo Udaleko Euskara zerbitzura (943805622) edota Goiztiri AEK euskaltegira (943889174).

Irriki futbol eskola

9 hilabetez futbolaren trikimailuak ikasi nahi dituen gazte orok aukera izango du Irriki Futbol Eskolaren eskutik. Entrenamenduak astelehenean bertan hasiko dira eta 93/94, 95/96 eta 97/98 urteeta jaiotakoentzat zuzuzendua dago. Matrikula prezioa 30 eurokoa izango da eta gero hilero beste hainbeste ordaindu beharko da. Informazio gehiagorako deitu 655707900 (Pinti) telefono zenbakira.

Agur

10 urte Goierritarreko Ordiziako kronika idatzi ondoren agur esan beharrean da azpian sinatzen duen hau. Makina bat albiste izan dira urte hauek guztietan zuengana zuzendutakoak eta guztion gustukoak izango zirelakoan hemendik aurrera Goierriko Hitzako kronika irakurtzen jarrai dezazuela eskatu besterik ez. Aio!

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Maindireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagaiak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA

ZUZENKI
A HOLKULARITZA

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elozei, 16 LAZKAO

Abokatuak

Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.txekin.net

Ordizian, urriaren 15ean eta 16an:

Ordiziarock: herriko musika taldeek antolatutako asteburua

Ordiziako Euskal Jaien mendeurreneko ospakizunen barruan, Ordiziarock musika asteburua antolatu dute Ordiziako musika taldeek. Urriaren 15ean eta 16an izango da. Musikaz gain, beste hainbat ekintza ere egingo dituzte, gazteen festa izatea nahi baitute.

Asma, Silikonay, Dogma de Fe, Hell Beer Boys, Mutuo Desprecio, Nuke eta Milkshake taldeek elkarlanean antolatutako festaren emaitza da Ordiziarock. "Euskal Jaien mendeurrenaren barruan, Udaletxetik, asteburu musikal bat antolatzeko proposatu ziguten. Kontzertu hutsean gelditu beharrean, ekitaldi osoago bat egin nahi izan dugu. Udalak aukera hau eman digu eta aprobetxatu beharra daukagu", diote antolatzailerak.

Ekitaldi nagusiak, urriaren 15eko eta 16ko gaueko kontzertuak izango badira ere, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte Ordiziako gazteek. "Futbolin txapelketak, graffiti lehiaketak, skate lehiaketak, pintxoak... izango dira. Guk geuk, mimo handiz prestatutako pintxoak izango di-



Ordiziarock asteburuaren antolatzaileretako batzuk.

ra", diote. "Musika talde on bat ekartzearen aukera ere aztertu genuen. Baina aurrekontu arazoagatik, beste ekintza batzurekin osatzea erabaki dugu", gaineratu dute.

Kontzertuak dohainik izango dira. Beti Alai pilotalekuaren ondoan karpa jarriko dute kontzertuetarako. Barruan, txosna egongo da.


Elkarlana

Ordiziako musika taldeak ezagutu eta elkartzeko balio izan du Ordiziarock-ek. "Gustura gelditu gara. Ordiziako taldeak elkartzeko balio izan du. Elkarlanean ibili gara eta hori da positiboa", azpimarratu dute gazteek. "Gazte giroa bultzatu nahi

dugu, festa alternatibo bat egin nahi dugu. Sentimentuz egindako festa bat da", gaineratu du.

Aldarrikapenerako ere aprobetxatu nahi dute momentu hau: "Udalari erakutsi nahi diogu, Ordiziako musika taldeek gauzak egiteko gogo daukagula. Adibidez, udaltxera lokalak eskatzera askotan joan gara eta ez gaituzte serio hartu. Talde asko lokal faltagatik desagertu dira. Ordiziarock-ekin elkartu egin gara taldeak. Elkarrekin joanda serioago hartuko gaituztelakoan gaude".

Aurtengo esperientzia ondo ateraz gero, aurrera begira ere lanean jarraitzeko asmoa azaldu dute ordiziarrek.



Egitaraua

Urriak 15, ostirala:

19:00etan: Txupinazoa.

Ondoren: Batukadarekin, kalejira, herrian.

22:30ean: Kontzertua, pilotaleku txikian jarriko den karpan. Asma, Silikonay eta Dogma de Fe.

Urriak 16, larunbata:

Eguerditik hasita, futbol txapelketa.

16:30ean: Skate eta graffiti lehiaketak.

19:00etan: Pintxo dastatzea.

22:30ean: Kontzertua: Hell Beer Boys, Mutuo Desprecio, Nuke eta Milkshake.

Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarretekoak

Kolegiatu zkia.: 649 RPS 144/02

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Urriaren 19tik 23ra,

Sustraiez Blai:

IV. Munduko Kulturen topaketa

Zaldibian jarritako karpan izango dira jaialdi nagusiak

Urriaren 13tik 23ra bitartean, munduko herrialde ezberdinetako musiken bilgune izango da Goierri, Sustraiez Blai topaketan barruan. Aurten, ekitaldi nagusiak, Zaldibian izango dira.

Hasiera batean aurtengo Sustraiez Blai -ren kokaleku nagusia Beasain izatekoa bazen ere, arazo bat eta besteagatik, Zaldibian kokatuko dute urriaren 22 eta 23ko ekitaldietarako karpak. "Pena handiz, baina azkenean Beasainen ez da aukerarik izan. Zaldibian posible izan da. Proiektua gustatu egin zaie eta ez dugu oztopo bakar bat ere izan", argitu dute Sustraiez Blai-eko kideek. Zaldibiako udalarekin akordio berezi batera iritsi dira gainera. "Dirulaguntza bat eman beharrean, Udalak kontzertuetarako sarrerak erosi ditu, eta herritarren artean merkeago salduko ditu. Formula oso polita iruditu zaigu", zehaztu dute. Hori bai, Beasaingo Udalak Sustraiez Blai proiektuari dirulaguntza eman dienez, Udazken Kulturalaren



Sustraiez Blai topaketak antolatu ahal izateko, urtean zehar hainbat eta hainbat ekintza egin dituzte antolatzaileek, dirua biltzeko helburuarekin.

Txosnak jarri, errifak saldu, kamisetak saldu...

barruan sartu ditugu hainbat ekintza. "Elkarlan honi esker posible izan da", diote.

Zaldibian pilotalekuaren ondoan, erreka bazterrean jarritako dute karpa. Barruan, txosna egongo da eta goizeko 6,30ak aldera arte irekita egongo da.

Filosofia

Sustraiez Blai jardunaldien helburua, herrien musika jaialdia izatea da. Horrekin batera, "erreferente kultural bihurtu nahi dugu Goierri. Hiri handietan entzun daite-

keen musika Goierriara ekarri nahi dugu. Musika oso bariatua ekarriko dugu. Euskal Herriko eta kanpoko hainbat herrialdeen sustraiekin zerikusia duen jaialdia izango da. Punta-puntako jaialdiak izango dira".

Hitza eta erritmoa

Aurtengo egitaraua, hitzaren eta erritmoaren testuinguruan moldatu dute. "Hiru komunikazio mota ezberdinei lotua dago aurtengo Sustraiez Blai: hitza, erritmoa eta gestoa. Azken hau ezin izan dugu lotu eta hitza eta erritmoan

Lazkao Txikiren ahotsa, musika induaren erritmoan

Luis Caminok abesti berezia moldatu du Sustraiez Blaierako. Lazkao Txikiren ahotsa eta musika indua uzartu ditu Caminok. Mikel Laboak ere tartean ahotsa sartuko du. Hori guztia, cd batean bildu eta salgai jarriko dute Sustraiez Blai-ek, Goierriko kioskoetan.

utzi dugu. Hitza Biluzik eta Hitza Jantzita deitu diogu ostitaleko jaialdiari. Lehenengoan bertsolariak eta Poma da katalanak izango dira eta Hitza Jantzitan, raperoak", zehaztu dute. "Komunikazio mota berriekin zerikusia du. Bertsolaritza transmisio modu bezala, jendearen bozgorailu izan da. Bertsoaren bidez herriaren egonezina plazaratu izan dituzte bertsolariak. Jaialdiaren bigarren zatian, raperoa eta hip-hoperoak izango dira. Gaur egungo gazteek beraien kezak azaltzeko duten komunikazio bide berria".



GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✖ Depresioak
- ✖ Beldurrak
- ✖ Harremanetarako arazoak
- ✖ Antsiak
- ✖ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

Oreka TX, Faltriqueira, Fun-da-mental, Andoni Egaña...

Hitza eta erritmoa dira protagonista Sustraiz Blai topaketan

Urriaren 13tik 22ra:

Ordiziako Barrena kultur etxean, 'Chiapaseko indigenak' argazki erakusketa.

Donostiar gazte batzuk Chiapasko indigenei buruz prestatutako argazki erakusketa da. Indigenek ahoz aho transmititu dituzten ipuinak ere jaso dituzte, euskaraz.

Urriak 20, asteazkena:


20:00etan: Andoni Egaña-ren 'Ahoskotasuna: historia eta gaur egungo egoera' hitzaldia, Lazkao Kultur etxean.

Urriak 21, osteguna:


Arratsaldean, hurrekin egindako tailer esperimenta-laren bukaera.

21:30ean: Fernando Leon de Arano zine zuzendariaren 'Caminantes' dokumentala eta oraindik zehaztu gabe dagoen laburmetraia, Beasaingo Usurbe antzokian.

"Lujoa da 'Caminantes' eskaintzea. 60 minutuko dokumentala da, Mexiko D.F. ra zapatistek egindako indigenen martxa ikusten da.



Ostiraleko eta larunbateko jaialdietarako bono berezia eros daiteke 32 eurotan.



Fernando Leon de Aranoa da zuzendaria. Marcos subkomandantearekin elkarriketa dago. Guretzat pribilegioa da, guk dakigunez, inongo zine klubek ez baitu eman. Dakigenez, Canal + bakarrik eskaini da. Zinean ez da komertzializatu".

Urriak 22, ostirala:

21:00etan: Kataluniako Pomada inprobisatzaileak eta Jon Maia eta Jesus Mari Irazu bertsolariak Zaldibian, karpan.

24:00etan: Karpan, Kon-

tzertua: Aria Puella (Dominikar errepublika), Fun-da-mental (Pakistan-Bretainia Handia), Bad sound system (Euskal Herria) eta DJ. saioa Dave Watts (Pakistan-Bretainia Handia). Sarrera: 18 euro.

Urriak 23, larunbata:

23:00etan: Karpan, kontzertua: Faltriqueira (Galizia), Kolpez Kolpe experience (Euskal Herria), Sargento Garcia (Paris) eta DJ. saioa Clandestino (Euskal Herria-Bristol). Sarrera: 20 euro.

"Larunbata erritmoari zuzendua izango da. Faltriqueira galiziarrek izango dira, Gypsy of Rajasthan-ek musika indua jotzen du, fakir batekin etorriko dira".

Urriak 29, ostirala:

21:00etan: Kontzertua, Ordiziako Herri antzokian: Luis Camino & Abya Yala, disko berriaren aurkezpena.

Azaroak 2, asteartea:

21:00etan: 'Soinu instalazioa: 19 k' eta Oreka TX, Beasaingo Usurbe antzokian.

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420

J.M. Iturriotz, z/g

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabeekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net

lues rothers
BEASAIN

ZINEA

Goieniz:

'Osama'. Urriak 14, 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Caminantes'. Urriak 21, 21:30ean, Usurbe Antzokian.

antzerkia

ZALDIBIA:

Urriak 7, 'Zazpi gezur txiki' antzerkia, 22:00etan.

bertsoak

ZALDIBIA:

Urriak 6, Iker Zubeldia eta Iñaki Murua bertsolariak, 11:30ean.

Yoga ikastaroak

Ayoc, Yoga Klasikoko Elkarteak antolatuta, 2004-2005 ikasturteak bi ikastaro mota izango dira, Ordizian, Zaldibian eta Lazkao.

Astanga yoga ikastaroa: Yogaren teknologia osoa 8 urratsetan, Harold Sequiera irakasleak zuzendua. **Ordizian:** Barrenan, urriaren 13tik 15era, 18:30etik 20:30era. Izen emateko azken eguna, urriak 9 (943801427 - Nekane). Ikastaroa 30 pertsonekin osatuko da. **Lazkao:** Kultur etxean, urriaren 16an, 9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 18:30era. Izen emateko azken eguna, urriak 9 (943801427 - Nekane). Ikastaroa 30 pertsonekin osatuko da.

Yoga klasiko ikastaroa: **Ordizian:** Barrenan, urriaren 20tik maiatzera arte, asteazkenetan 18:30etik 20:00etara. Izen ematea: 943889770 - Mari Jose. **Zaldibian:** Gimnasioan, urriaren 19tik ekainera arte, asteartetan 19:00etatik 20:30era. Izen ematea: 943889667 - Karmele. **Lazkao:** Kultur etxean, urriaren 19tik maiatzera arte, 10:00etatik 11:30era. Izen ematea: 943801427 - Nekane.

musika

ZALDIBIA:

Urriak 5, Kiñu, 23:00etan, plazan.

Urriak 6, Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariekin eta Patxi Perez dantzariarekin erromeria, 22:30ean.

Urriak 8, Rubi taldearekin dantzaldia, 23:30ean.

Urriak 9, Drindots taldea, 22:30ean.

Urriak 10, Imuntzo eta Beloki trikitilariak, 22:30ean.

Urriak 11, Txatunga Bembere perkusio taldea, 20:30ean eta gauean.

dantza

ZALDIBIA:

Urriak 10, Iztueta dantza taldearen saioa, 12:00etan.

hitzaldiak

BEASAIN:

Urriak 10, 'Fibromialgia eta astenia kronikoa' Bizi Bide elkartearen eskutik, Udaltxeko Batzar aretoan, 18:00etan.

LAZKAO:

Urriak 20, Andoni Egañaren 'Ahozkotsuna: historia eta gaur egungo egoera' hitzaldia, Kultur etxean, 20:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Azarora arte, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Igartza jauregian.

Urriaren 3ra arte, M. Jesus Lopezen pintura-erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketaretoan.

ORDIZIA:

Urriaren 29ra arte, Koldobika Jauregi eskultugilearen erakusketa, Barrenan.

Urriaren 13tik 22ra, 'Chiapaseko indigenak' argazki erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Urriak 3, Aizkorri Mendizale Elkartea: Kilometroak 2004, Zarautz-Orio.

Urriak 10, Aizkorri Mendizale Elkartea: Arrastortzeko kanpaldia.

ORDIZIA:

Urriak 3, Ordiziako Mendizale Elkartea: Pagoeta - Kilometroak 2004.

Urriak 17, Ordiziako Mendizale Elkartea: Euskal Federazioaren martxa.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Urriak 2-3: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

Urriak 9-10: Rekalde (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 880628.

Urriak 16-17: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Argazki ikastaroa Argizpin

Beasaingo Argizpi argazkizale elkarteak eta Beasaingo Kultura Saila Lehen Mailako argazki ikastaro bat antolatu nahian dabilta. Urrian hasi eta urte amaierarako amaituko litzateke, astean zehar pare bat egunez eta astebukarren irteeraren bat. Guztira 40 ordu inguru. Interesatuta daudenak Beasaingo udaleko kultura sailera deitu dezakete, ondorengo telefonora 943028065.

'Enpresa berri bat sortzen' ikastaroa

Beasaingo 'Gertu, enpresa aholkulariak eta abokatuak' entitateak, 'Enpresa berri bat sortzen' izeneko ikastaroa antolatu du. Urriaren 26, 27 eta 28an izango da, arratsaldeko 6etatik 8etara, Gertu Aholkularitzako lokaletan (Beasaingo Kale Nagusia, 2an). Izen-emateak 943162192 telefono zenbakian egin behar dira (Pello edo Idoia-gatik galdetu).

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Enpresa bat sortu aurretik aztertu beharreko bideragarritasun planaren azterketa; enpresa sortu ondoren kontutuan izan beharreko hainbat gaien errepasoa egitea; eta Foru Aldundiko Txekin programaren eta dirulaguntzen berri ematea da ikastaroaren helburua.


'Iraintzea hitzez jotzen da' Ahozko indarkeriari buruzko erakusketa Ordizian

Ordiziako Ongizate Sailak, Kimetz Elkartek eta Udal Liburutegiak antolatuta, urriaren 4tik 15era ahozko indarkeriari buruzko erakusketa izango da ikusgai Barrena Kultur Etxean. Erakusketa ibiltari hori, Ordizian hasiko da eta hemendik beste bost herritara joango da.

'Iraintzea hitzez jotzea da' izenburupean Juul dago. Berdinen arteko indarkeria da kontakizun hauen muina, egurrezko eskulturen bidez datorkigu irudikatua, eta ikuspuntu artistikoaz gain gogoeta egitea ere helburua bada.

Ordiziako Udal Liburutegitik adierazi digutenez, "duela hilabete batzuk, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako sei liburutegi eta beste entitate batzuk ados jarri ginen erakusketa gure herrietara ekartzeko. Erakusketak, irainak, laidoak eta beheramen-duak ere indarkeriazko ekin-tzak direla eta iraindua lur jota uzten dutela nabarmen-tzen du. Egunerokotasun handiko gai honi buruz haus-narketa egiteko baliagarria izango dela uste dugu".

'Iraintzea hitzez jotzea da' erakusketa 10 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua dago. Ongizate Sailak, Kimetz Elkartek eta Udal Liburutegiak, herriko ikastetxeekin eta beste el-



Juul maitasun istorio bat da. Juulek jendea bera maitatzen du, eta aldi berean bera maitatua izatea nahi du, besteen hurbiltasuna, gerturatzea nahi du. Horregatik, gorputzetik ateratzen du besteen gustuko ez den guztia, hau da, besteengandik urrutiratzen duen guztia kentzen du gorputzetik.

karte batzuekin hitzartu nahi dituzte bisita gidatuak. "Bisita gidatuen helburua, bertaratzen denak ahozko indarkeriari eta bere ondorioei buruz gogoeta egitea da". Bisitak erakusketarekin esperientzia daukan begirale batek bideratuko ditu. Bisita gidatuez gain, erakusketa zabalik egongo da gero 18:00etatik 20:00etara.

Juul liburuan oinarriturik

Erakusketa Gregie de Mae- yer idazlearen 'Juul' liburuan oinarriturik dago, Koen Vanmechelen ilustratzailearen irudiekin. 1996an Ló-guez argialetxeak kaleratu zuen gaztelerazko bertsioa,

Nuria G. Santos itzultzailea zela. 2000. urtean Ikastolen Elkartek, Aingeru Epaltzak egindako euskarazko bertsioa argitaratu zuen. Gaztelaniazko edizioa gaur egun agortuta dago.

Erakusketaren moldaketa- ren arduraduna Gijongo Udaleko Kultur Fundazioko Hezkuntza Programen zuzendaria den Paco Abril ipuin kontalaria eta idazlea da, Juan Stové artistarekin batera, 1998an liburuko ilustrazioak egurrezko eskulturetan bihurtu zituen. Ordudanik estatu guztiko liburutegi eta eskoletan zehar ibili da 'Iraintzea hitzez jotzea da' erakusketa.

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joañ Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

TALDE TXIKIAK

- ✓ Banakako atentzioa
- ✓ Ordutegi zabalak
- ✓ Ikasgai guztiak
- ✓ Irakaslego trebatua

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduloak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Marrazketa
- ✓ Teknologia

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
- ✓ Kontsultak
- ✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

2004-2005 IKASTURTEA

Etxebizitzak

salgai

➔ Beasainen etxebizitza salgai. Herri erdian. 2 logela, 2 bainugela jantzita, sukaldea jantzita, eta bi balkoi. Trasteroa ere badu. Garaje itxia aukeran. 667326707.

➔ Ordizian atikoa salgai. 50 m². Dena eraberritua. Sukalde amerikarra, hiriko gasa. 18.000.000 pezeta. 630207879.

➔ Seguran etxebizitza salgai. Sukalde, egongela, 3 logela eta 2 bainugela. 652741042.

➔ Ordizian etxebizitza salgai. Poligonoan. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta ganbaratxo. Garajea aukeran. 650337258. 18:00etatik 22:00etara deitu.

➔ Seguran etxebizitza salgai. 943801392.

➔ Legorretan etxebizitza salgai. Egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela eta trastalekua. Balkoi handia. 647586507. 13:00etatik 14:30era deitu.

errentan eman

➔ Nafarroan, Urbasa ondoan, etxea alokatzen da. 10 lagun edo gehiagorentzako. Ingurune berdea, aparkalekua, barbakoa, txokoa, egongela. 948539381 - 616537765.

errentan hartu

➔ Goierri edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. 645722874.

elkarbanatzeko

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

Garajeak

errentan eman

➔ Idiazabalen garajea alokatzen da, Kale Nagusian, 15-17 zenbakian. 943187585.

➔ Ordizian, Lukusin plazan, garaje itxia alokatzen da. 615768977.

➔ Beasainen, Esteban Lasa kalea, garaje itxia alokatzen da. 615787097.

Partzela

salgai

➔ Lazkaon, partzela urbanizatua salgai. Inmobiliariak izan ezik. 17:00etatik aurrera deitu. 658704793.

Lokalak

errentan eman

➔ Lokal itxia, alokatzen da Beasainen. 615789097.

errentan hartu

➔ Musika talde batek lokala behar du entsaizatzeko, Beasainen edo inguruan. Insonorizatu da. 943027516 - 665734291. Ander.

Pabilioiak

errentan eman

➔ 250 m²ko (bi solairutan banatua) pabilioia alokatzen da, Lazkaoko Ibabe industrialdean. Ekipatua dago. 669340218.

Negozioak

errentan eman

➔ Beasainen ileapaindegia alokatzen da. Erdigunean. 943883988.

salgai

➔ Ileapaindegia salgai, jubilazioagatik. Bezero ugariekin. 686978667.

➔ Ileapaindegia salgai Lazkaon. Bezero ugariekin. 943883739.

Lagun bila

➔ Egunero, Ordiziatik Eskoriatzara joateko kotxea konpartitzeko lagun bila nabil. 943086444.

Animaliak

salgai

➔ 26 ardi salgai. 696220099.

erosi

➔ Asto bat erosiko nuke, emea. Merkea. 943180388.

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Frontera DTI 2200, todoterrenoa salgai. 86.000 km. Beti garajea egona. Aire egoitua, hainbat extra. 5 urte. 18.000 euro. Negoziagarriak. 943038976 - 656745269.

➔ Citroen C15, diesel, salgai. Oso egoera onean. SS-AP. 943801107 - 656710809. Joxe.

➔ Golf GTI, 3 seriea, salgai. NA-AG. Gorria. 163.000 km. 628858289.

➔ Volvo 360 GLE injekziozkoa salgai. SS-AF. Oso egoera onean. 659671097.

➔ Opel Kadet 1.7 d. salgai. 160.000 km. Egoera onean. 610854904.

➔ CI Mizar CI-130 Capuchina modeloko Fiat 1.9 TD autokarabana salgai. SS-AU. 40.000 km. Toldoa, TV antena, 5 lagun ibiltzeko. 6 leleku. 609029559.

➔ Volkswagen Polo GT autoa salgai. 626609367. Egoera onean. 900 euro.

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Jauregi
TOLDOAK

BEASAIN
943 88 02 43 - 943 88 01 33

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

José Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

➔ Peugeot 306, diesel, salgai. 16.000 km. 2 urtekoa. 615726481.

➔ Opel Vectra 2.0 GT salgai. 1994. urtekoa. Aire egokitua, llantak, elurretako gupilak eta gaineko barrak. Egoera onean 617128654.

Galdutako objektuak

➔ Irailaren 20an San Adrian inguruan, telefono mugikorra galdu nuen. 943885139.

Aurkitutako objektuak

➔ Txamarra beigea eta urdina aurkitu da Seguran. 943801002.

Bestelakoak

salgai

➔ Sehaska salgai, osagai guztiekin. Egurrezkoa. Mahaiari eransten zaion aulkia eta kotxean haurra eramateko aulkia ere bai. 670422051.

➔ Moncayo Alhambra-430 karabana salgai. 5 lagunentzat. Egoera onean. Komuna eta sukaldea erabili gabeak. Osagarri guztiekin. Beti garajejan egona. 669239195.

➔ Hispania RX Racing motorra salgai. 2001. urtekoa. Egoera onean. 609944562.

➔ Baserritik zuzenean, sagar ekologikoak salgai. 943161945.

➔ Seat Leon FR 17ko llantak salgai. Separadoreak 2 zm.koak. 652754858. 18:00etatik aurrera deitu. Aritz.

➔ Gas Gas 97 trialeko motorra salgai. 617768011. 18:00etatik aurrera deitu. Harkaitz.

Lana

eskaerak

➔ Neska bat behar da tabernan lan egiteko sukaldeko laguntzaile bezala, asteburuetan. Ez da beharrezkoa esperientzia izatea. 605772623.

➔ Larunbatean zerbitzari lanak egiteko neska bat behar da. 630402575.

➔ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, astean 5 egunetan. Euskalduna, ahal bada. 653705904.

➔ Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada hobe. 606212314.

➔ Pertsona euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. 943886577.

➔ Zerbitzaria behar da, Beasainen. 629160500 - 627122097.

➔ Etxeko lanak egiteko eta sei urteko ume bat zaintzeko, pertsona bat behar da. 943028855. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Rock talde batek bateria jolea behar du. Esperientziaduna. 610883688. Arratsaldetan deitu.

➔ Neska bat behar da jatetxe bateko barran lan egiteko. Larunbatean, igandetan eta jai egunetan. 675718192.

eskaintzak

➔ 20 urteko neska euskalduna prest legoke asteburuetan lan egiteko. 610368543.

➔ Lazkaon pintura eta plastika tailerra helduentzat eta haurrentzat. 94388085954 - 630751000.

➔ Ingelera klaseak ematen dira, Lazkaon eta Ataunen. 690088579.

➔ Dantza ikastaroak ematen dira: fandango eta arin-arina. 3 hilabetezko ikastaroak, astean

egun 1, haur eta helduentzat. 619437004.

➔ Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak, adinekoak zaindu eta abar. 660759207.

➔ 21 urteko goierritar mutil bat arratsaldeetarako lan bila dabil. 637781384.

➔ Magisteritzan diplomatutako neska euskalduna prest dago klase partikularrak emateko. 696597878.

➔ Kimikan lizentziaturiko neskak, kimika, fisika eta matematikako klaseak ematen dizkie DBH eta DBHO mailetakoko ikasleei. 699398477.

VII. ARTI/AVALDIA
2004
ORDIZIA
GIPUZKOAKO ARTISAUEN VII. AZOKA

URRIAK 9-12

MAJORI Kiroldesia

Ordutegia:

10:30etik 14:00etara

17:00etatik 20:30era

www.artisaualdia.com



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.



Zaldibia 1925 inguruan

Zaldibiako 1925 urte inguruko eskola umeak dira argazkikoak. Martin Ibargurenek Zaldibiako Kultur Etxeari utzitako argazkia da.

MILA ARRADEGIA



Sta. Fe jai zoriontsuak!

☎ 943 88 90 84

Sta. Fe Kalea

ZALDIBIA



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Gaztelu

Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

● **Iturgintza**
● **Berogintza**

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN

IÑAKI ERAUSKIN
HARATEGIA

Mondeju ederrak!

☎ 943 88 30 87

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

ESTANKO
taberna

Pintxo bereziak

Festak ondo pasa

☎ 943 88 28 65


Sta. Fe, 15

ZALDIBIA



suquia

sukaldeak



Zure sukalderako berrikuntza eta kalitatea

NAFARROA ETORBIDEA, 16


TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com



Badakizu lo egiten...



...amesten ikasi

-0%20

SWISSFLEX somierrean

-0%10

SWISSFLEX koltxoiean

biak erostean!

Eskaintza honek Abenduak 10a arte iraungo du

SWISSFLEX

GOIERRIKO BANATZAILE OFIZIAL BAKARRA

Nafarroako Etorbidea, 1 20.200 Beasain 943 88 68 51

amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK